

Dramatizazioa

Aukerako irakasgaiak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Bigarren Zikloa

Ignacio Aranguren Gallués

Vicente Galbete Martincorena

M^a José Goyache Romeo

M^a Teresa Pascual Bonis

ITZULTZAILEA:

Eneka Maiz Ulaiar (Material Didaktikoak)

ARGITARATU:

Nafarroako Gobernua. Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua

I.S.B.N.:

84-235-1498-6

LEGE GORDAILUA:

NA-953-1996

AURKEZPENA

Abenduaren 26ko 513/1994 Foru Aginduaren bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapako aukerako zenbait irakasgairen curriculuma onetsi egin zen. Aldez aurretik ofizialki aginduta zeuden irakasgai hauen guztien kontzeptua eta ikuspegia, baita helburuak eta edukinak (kontzeptu, prozedura eta jarrerena, alegia) ere, beharrezkotzat jotzen ziren.

Orduan onetsitakoa curriculumaren lehen konkrezio mailari zegokion, beraz. Irakasleek, ordea, eta arrazoi osoz, eredu zehatzak eta adibidide adierazgarri, orientagarri eta betegarriak eskatzen dituzte ikasgelako programazio didaktikoak prestatzeko, are eta gehiago hezkuntza arloan lehendabiziko aldiz inkorporatzen diren zenbait irakasgairen kasuan.

Poz ematen dit ikusteak orain aurkezten dugun Dramatizazioari buruzko liburu honek helburu hori betetzen duela. Dramatizazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloan eskaintzen den aukerako irakasgaia da. Curriculum ofizialean ageri denez, irakasgai hau ez da agortzen eskola-antzerkitzat ulertzen dugun horretan, areago jotzen baitu. Izan ere, Dramatizazioaren nabarmenena ez da ikuslegoari eskaintzen ahal zaion azken emaitza, horretarako prozesua baizik, zeren eta zeregin horretan neska-mutilak ahotsaz, gorputzaz, baita eszena-espazioaz eta denboraz ere lagunduta, estetika zentzu batez, euren sentimenduak eta bizipenak adierazten eta komunikatzen baitituzte.

Dramatizazioan ez dago aktorearen eta ikuslearen artean ohi den muga garbi hori. Garrantzitsuena da ikasleak, ikusle-aktorea den aldetik, taldekako, elkarbizitzako eta barneko ahaleginaren bidez bere burua hobeto ezagutzea, bai eta, estetika zainduz, arteak eta ezagutzak aktiboki, orokorki eta integratuki eureganatzeko ahalegina egitea ere. Honetarako, hainbat antzerki-jokuz, inprobizazioz, teknikaz eta ariketaz baliatuko dira, azkenik, garrantzitsuena ez bada ere, ohiko antzezlan egiten amaitu daiteke edo ez.

Aurkezten dugun proposamena argia eta aberatsa da, eta nabari da bere egileek ikasleekin daukaten esperientzia. Jakina denez, proposamen honek ez ditu curriculum ofizialaren posibilitateak agortzen, eta irakasle bakoitzak, beharretara, irakasgaia enfokatzeko erara eta testuingurura egokitzen eta aprobetxatzen jakingo du. Baina, zalantzarik ez daukat, lan honetan badira balio handiko jarraibideak, irakasgaiaren barrena gustoz eta zorrotasunez ibiltzeko.

Pedro Burillo López

Hezkuntza, Kultura, Kirol eta Gazteri Departamentua

AURKIBIDEA

Aitzinsolasa	4
Irakasgaiaren curriculuma	5
Dramatizazioa. Material Didaktikoak	17
Sarrera.....	18
Orientabide Orokorrak.....	20
1. Dramatizazioaren ezaugarriak.....	20
2. Dramatizazioa eta nerabezaroa.....	21
3. Edukiak antolatzeke proposamena.....	22
4. Metodologia.....	26
5. Irakaslearen zeregina.....	27
6. Ordu-tegi antolaketa.....	28
7. Gelaren antolaketa.....	29
8. Beharrezko baliabideak.....	30
9. Ebaluaketarako orientabideak.....	31
10. Dramatizazioa eta antzezpenak.....	36
11. D. B. H.-n eskola antzerkia egiteko proposamena.....	37
Unitate Didaktikoa: "Zertan nabil hemen?".....	39
1. Sarrera.....	39
2. Helburuak.....	41
3. Edukien aukeraketa.....	41
4. Ikas-irakasketa iharduerak. Hauen sekuentziak.....	43
5. Metodologia.....	62
6. Aniztasunerako neurriak.....	63
7. Ebaluaketa.....	64
8. Baliabide materialak.....	65
Baliabide eta dokumentu gida.....	67
Bibliografia.....	67
Euskarazko bibliografia.....	80
Baliabide guneak.....	84

AITZINSOLASA

Liburu honek Dramatizazio curriculuma praktikan jarri behar duen irakaslegoaren lagungarri izan nahi du, Dramatizazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Bigarren Zikloko hautazko gaia izanen baita.

Gaiaren garapen didaktikoaren proposamena da liburu honen muina, gure Komunitateko irakasle talde batek egina. Liburuaren lehenengo atalean Foru Legeak garai batean finkatutako gaiaren curriculum bera agertzen da. Beraz, irakasleak, ale betean legea eta hau gauzatzeko proposamen bat aurkituko du. Honek proposamen didaktikoaren ulermena erraztuko du, ezin delarik ondo ulertu curriculumaren erreferentziarik gabe. Bide batez, curriculumaren azken zehazpen maila burutu behar duen irakasleari tresna osatuago bat eskaintzen zaio.

Garapen didaktikoaren proposamenak lau atal ditu. Sarrera labur batean "dramatizazioa" eta "antzerkilaritza" hitzen arteko bereizketa egiten da, gaiaren nondik norakoak ulertzeko ezinbestekoa den bereizketa.

Bigarren atalean, Orientabide Orokorrak delakoan, egileek proposamenaren berri ematen dute: edukien antolaketa, metodologia, irakaslearen zeregina, ordutegiaren antolaketa, beharrezko toki eta baliabideak, eta baita ebaluaketarako orientabideak ere; antzezlanak gaiaren baliabide didaktiko moduan erabiltzearen alde onak eta txarrak ere azaltzen dira.

Hirugarren atalean Unitate Didaktiko baten proposamena jartzen da adibidetzat: unitatearen kontextualizazioa, helburuak, edukiak, ekintzak, metodologia, aniztasunerako neurriak, ebaluaketa eta baliabide materialak.

Azkenik, Baliabide eta Dokumentu Gidak baliabide guneen zerrenda ematen du eta baita bibliografia komentatu bat ere, oso interesgarria delarik izenburuak gaika sailkatu dagoelako.

IRAKASGAIAREN
CURRICULUMA

DRAMATIZAZIOA

Sarrera

Iharduera dramatikoak, hezkuntzako testuinguruan, dramatizazio esanguran ulertu behar da, hau da, adierazpen eta komunikazio kodeen globalizazio prozesu korapilatsu bat, norbere burua eta ingurune sozial eta kulturala ulertzeko bidea ematen duena.

Iharduera dramatikoak horrela ulertzeak (zeinaren ondorioa baita hura Bigarren Derrigorrezko Hezkuntzako curriculumean sartzea) hartzaileek, adoleszenteek alegia, bilakaerako une honetan dituzten ezaugarriak hartzen ditu oinarri: haien bilakaera kognitiboak zenbait problema ditu bidaide: beren rola zehaztu eza eta psikomotrizitatearen inhibizioa; bere buruaren ikuskerak joera du subjektibismoa aterea izateko; eta besteekiko harremanen garapen desorekatua gatazka sorburu izan daiteke.

Dramatizazioa, etapa honetarako teatro iharduniki egokiena, arte bat da, teknika egokien bidez adoleszentearen dimentsio guztiak abian jartzen dituena eta bere gorputza eta nortasuna adierazpen eta komunikazio tresna gisa hobeki ezagutzen laguntzen diona: ahotsaren, mugimenduaren bidez, sentimentuak adieraziz eta sententzioak sentituz. Hori dena adoleszentea osotasunean inplikatzen duten eta ezagumendua eta afektuak biltzen dituzten erantzunen bila.

Dramatizazioa, estetika, lan kolektiboa da funtsean, talde harreman sakon baten bultzatzailea. Horregatik osakide guztien komunikazioa eta jarrera partehartzaileak eta tolerantziak aisatzen ditu.

Irakasgai honen izaerak, gainera, globalizatzailea eta arte eta ezagumenduaren bategilea delarik, bideak urratzen ditu diziplina arteko iharduerentzat, bereziki giza jakintza, artea edo heziketa fisikoarekin zerikusia duten beste haietentzat. Areago, gaiaren zenbait alderdik hartarako bide eman ezezik, beharrezkoa ere badute askotariko gaitasunak, eta jakite zahar zein berriak erabiltzea, bai ikasgelan ikasten direnetakoak eta bai eguneroko, gizarteko eta kulturako errealitatean ikasten direnetakoak eta modu harmoniko eta sortzaile batean integratu beharrekoak.

Nahitaezkoa da argiro bereiztea Dramatizazioa zer den eta eskuharki teatrotzat jotzen dena zer den. Hartan jendaurreko arte emaitzak du lehentasuna, ez hainbeste prozesuaren

etapeak, ikuskizunaren burutzea beste helbururik ez baitute; Dramatizazioan, berriz, ez dago holako morrontzarik hirugarrenek juzkatu beharreko azken buruko arte produktu batenganako.

Gainera Dramatizazioan aktore eta ikusle rola trukakizun dira taldearen barrenean; ez dago haien arteko bereizketa klasiko hura. Ezer baino lehen prozesuaren momentu bakoitzak du garrantzia berez: joku bakoitzak, inprobisazio bakoitza edo teknika bakoitzak ikasleari ikaste-irakaste prozesuan erabiltzen diren momentuan ekartzen diotenagatik balio izan behar dute, helburu eta ebaluazio mekanismo zehatz batzuekin.

Irakasgai honetan pisua duena ez da hainbeste etorkizuneko aktore profesionalak prestatzea, nola ikasle bakoitzak aurkitzea, ezagutzea eta gozatzea adierazpenerako eta komunikaziorako dituen gaitasunak eta bere sormena eta nortasuna bere buruaren mesede erabiltzea.

Lanen plangintzak kontutan hartu behar du haien garapena oinarriz bizipenezkoa dela eta askotan bide ematen duela —inprobisazio ihardueretan gehienbat— edukiak elkartrabatzeko ikasketak eskatzen duen heinean.

Dramatizazio irakasleak batez ere bultzatu egin behar du jendea begiratzera, sentitzera, sortzera eta komunikatzera, alde aurretiko patroi estetikoak inposatzen dituen kanpoko juez baten papera arbuiauz. Jarrera ireki eta sortzaile batetik prest egon behar du berak ere ikasleek bezala bere bagaje emozional, sozial, intelektual eta gorputzezkoa osorik erabiltzeko.

Dramatizazioan sartzen diren tekniken ugaritasunak aukera emanen die irakasleei zenbait alderdi jakinetan pisu handiagoa nahiz txikiagoa jartzeko. Konparazio batera:

- Joku dramatikoak eta inprobisaziozkoak egokienak izanen dira ingurunearen pertzepzio eta ulerpen hobia bilatzen bada.
- Antzeste teknikek lagun egingen diote interpretazio gaitasunak garatzeari.
- Teatro obra baten muntaiak ihardun dramatikoaren tratamendu osotarakoa bultzatuko du.
- Teatro testuen azterketa eszenikoa egiteak, eta harekin batera teatro emanaldiak ikusteak, ikasleen apreziazio gaitasuna handitzeko aukera emanen dute.

Gaiaren antolakera orekatu batek gogoan hartuko ditu puntu horiek denak. Irakasbide osoak gizakiek duten rol antzesteko gaitasun berezkoa hartuko du oinarri, ideiak eta emozioak esploratzeko, besterekin harremanetan jartzeko, harik eta berariazko tekniken bidez esperimendazio horren emaitzak kodetzea eta emaitzak besteei erakustea lortu arte. Alderdi horien guztien arteko oreka errespetatzen duen curriculum bat egokiena izanen da Bigarren Hezkuntzan Teatro Ihardunak egiteko.

Azken buruan, hezkuntzaren eremuan dramatizazioa ikuspuntu pedagogiko batetik planteatu beharko da, bera pertsonen arteko prozesu konplexu bat dela ulertuz, norberaren eta

ingurunearen errealitatea aztertu eta antzesten duena, zeinean parte hartzaileek osorik inplikatzeko diren: gorputzaz, ahotsaz eta irudimen-oroimenek sortzen dizkieten pentsamentu-emozioez.

Helburuak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Dramatizazio ihardunek ikasleengan honako gaitasunak garatzea izanen dute helburu:

1. Lan talde batean modu aktibo eta atsegingarri batean kideak, norbere ideiak espontaneoki aditzera emateak dakartzan zailtasunak gaindituz.

2. Ingurune pertsonal, sozial eta kultureko gertaerak eta ideiak aztertzea eta aditzera ematea inprobisazio dramatikoaren eskema batetik abiatuta.

3. Ideiak, teoriak eta gertaerak, rol eta pertsonaietan nortasuna proiektatuz aditzera ematea, egitura sinboliko, benetako nahiz alegiazko baten barrenean.

4. Interpretazioa egitea, jentua, ahotsa eta objektuekiko harreman dramatikoaren kontutuan hartzen dituzten antzeste teknikak sistematikoki erabiliz, eta espazioaren erabilerari buruzko ezagupenak geureganatuz.

5. Ideiak modu koherentean sortu, garatu eta egituratu pertsonaien arteko gatazka bati buruz denbora eta toki jakin batean, eta aurkezterakoan ahalegintzea besteek ideia horiek ulertzen dituzten.

6. Literaturako testuak ezagutu eta erabiltzea haien egitura formala, eduki tematikoak eta balore estetikoak aztertu eta ulertzeko, dena teinkadura dramatikoarekin duen harremanean jarriz, ondoren haren irakurketa dramatikoaren egitea edo taularatzea ahalbidetzeko moduan.

7. Teatroak lagun dituen bestelako arte hizkerak modu harmonikoan barrentzea, bereziki ikusteko adierazbideak, plastikoak, entzutekoak eta musikalak.

8. Animazio produkzioetan edo ikuskizun baten muntaian talde lanak zer garrantzia duen baloratzea, horietan jarraitasunak eta luzera begira lan egiteak talde osoaren arrakasta ekartzen baitu.

9. Teatro ikuskizunetan parte hartzea, antzes lanaren osagaiak preziatuz eta baloratuz; haiei buruzko juzku arrazoitua egiteko gai izatea, beste arte agerkariekin lotura eginez.

10. Teatroa adierazbide kultural gisa baloratzea, gizarte jakin baten iragana eta orainarekin lotua.

Eduki multzoa

1. Multzoa. Pertsonaia

Multzo honetako edukiek gorputza adierazbide gisa bultzatzen duten teknikak jorratzen ditu, dela alderdi fisikotik (ahotsa eta mugimendua), dela antzeslanaren euskarri gisa (rol eta pertsonaiak), aktorearen bitartez edo objektu animatuaren bitartez.

Kontzeptuak

1. Gorputza eta gorputz bidezko adierazpena antzeslearen adierazpen aukera gisa.

- Erlajazioa: arnas hartzea eta muskulu tentsioa.
- Kontzentrazioa: mekanismoak eta interferentziak.
- Obserbazioa: pertzepzioa eta oroimena. Zentzu oroimena eta afektu oroimena.
- Gorputza mugitzen: desinhibizioa, kontrola, psikomotrizitatea, desplazamenduak, mugimenduaren antolaketa (koreografiak).
- Jestu bidezko lengoia: mimika, egokera, jestua.
- Ahotsa: arnasa, bokalizazioa, entonazioa, adierazkortasuna.

2. Karakterizazioa: pertsonaiaren barne eta kanpo eraikuntza.

- Obserbazioa eta imitazioa: ekintza (denbora/ritmoa), ezaugarri fisikoak, makilaia, ile apaintzea, jantziak, atrezzoak.
- Giza portaeren kodifikazioa: prototipo sinbolikoak (atsoa, irakaslea...), psikologikoak (lotsatia, kanporakoa, abulikoa...) eta alegorikoak (Maitasuna, Gorrotoa, Bizitza...).
- Izaeraren ezaugarri indibidualizatzaileen analisisa: desirak eta asmoak.

3. Objektu animatua: maskararen eta titerearen adierazpen ahalmenak, aktorearen manipulazioen bidez.

- Titerearen karakterizazio plastikoa pertsonaiaren ezaugarrien arabera.

Prozedurak

1. Distentsio muskularreko ariketak egitea (saltoak, lasterrak, zilipurdiak etab.).

2. Kontzentrazio jokuak egitea, bikoteka nahiz taldeka, ekintzak errepikatu, lotu edo amaitzean oinarrituak.

3. Zentzu oroimenaren eta afektu oroimenaren pertzepzioa jokuen bidez.

4. Soinuztatze jokuen produkzioa: akuilu batetik abiatuta inprobisazioak egitea.

5. Erlajazioa eta beroketa erabiltzea aldarte fisiko eta animikoa hobetzeko.
6. Desinhibizio prozesuak egitea.
7. Jestu lengoiaren teknikak erabiltzea.
8. Norbere baliabide gorputzezkoak eta ahotsezkoak esploratzea.
9. Ingurune hurbileko pertsonen portaera aztertzea.
10. Ahotsaren adierazpen aukerak esploratzea.
11. Maskarak eta titereak egin eta manipulatzeko.

Jarrerak

1. Jestu, ahots, eta mugimenduaren desinhibizioa eta espontaneitatea.
2. Barne mundua baloratzea nork bere burua ezagutzen dueneko lekua eta adierazpen ahalmenen sorburu den partez.
3. Nork bere gorputza onartu eta baloratzea eta bere adierazpen ahalmena ezagutzea.
4. Besteak baloratu eta errespetatzea, egoerak aztertuz, ikuspuntuak erkatuz eta aurrejuzkuak, egozentrismoak eta inhibizioak gaindituz.
5. Ohartzea arnasaren eta fonazioaren kalitateak lagun egiten duela ahozko komunikazioa hobetzen.
6. Antzeslana baloratzea lan sistematiko, konplexu, sortzaile eta atsegingarri gisa.
7. Objeto eta titere teatroa baloratzea, beste agerkari teatralekin parekatzeko moduko adierazbide gisa.

2. Multzoa. Espazioa

Multzo honetako edukiek espazioan barnako desplazamendua tratatzen dute, bai aktorearena eta bai titerearena, eta objetuen artean sortzen den harreman dramatikoak.

Kontzeptuak

Espazioa eta pertsonaia.

1. Desplazamenduak: mugimendua pertsonaiaren asmo eta izaeraren ondorio gisa (aktorea zein titerea izan).
 - Ibilbidea: motak eta ritmoak.
 - Topaketa: egokitzea ala gatazka.
 - Desplazamenduaren plangintza: eskemak eta gidoiak.
2. Espazioa eta talde interakzioa: partehartzearen espazioak, obserbazioaren espazioak.

3. Objektuak espazioan: zentzumenezko eta emoziozko harremana aktore eta titerearen eta objektuen artean.

Prozedurak

1. Desplazamenduak ritmo diferenteekin egitea (ibilian, lasterka...) edo mugimendu kalitate diferenteekin (kamara nagia, azelerazioa...) lehendik planifikatutako ibilbideak segituz.

2. Pertsonaiak eta ekintzak sortzea lehendik ezarritako desplazamendu eskemetatik abiatuta.

3. Objektuak modu sortzaile batean erabili eta eraldatzea.

4. Sentsazioak, emozioak, pertzepzioak edo ideiak komunikatzea talde konposizio espazial diferenteak erabiliz.

5. Desplazamendu eskemak egitea.

6. Pertsonaiak sortzea objektu batekiko harremanetik abiatuz.

7. Objektuekiko harreman zentzumenezko edo emoziozkoetik abiatuta historiak antzestea.

8. Egindako desplazamendua errepresentatzea hainbat kode grafiko erabiliz.

Jarrerak

1. Espazioa premia espezifiko batzuen arabera antolatzekeo interesa.

2. Espazioaren dimentsio funtzional eta estetikoak baloratzea.

3. Espazioari eta objektuei lotutako ihardueretan modu aktibo eta espontaneoan parte hartzea.

4. Taldeko osakideek beren nortasuna agertzen dutenean interesa eta errespetua erakustea.

3. Multzoa. Egoera dramatikoak

Multzo honetako edukien ardatzea da gatazka baten denboran barnako aurrerakuntza hainbat eskema formalen barrenean, hasi koadroeszenikoen segida huts batetik harik eta eszena bateko ekintza eta teatro obrarena aztertzeraino bi borondateren konfrontazio gisa eta horrek testuan duen isla gisa.

Kontzeptuak

1. Denbora: ekintza eta ekintzarik ezaren arteko txandakatze ritmikoa.

- Ritmoa: biziagoaldiak, makalagoaldiak eta etenaldiak.

- Denbora erreala eta denbora dramatikoa. Denbora dramatikoaren adierazbideak.
2. Gatazka: ekintza baten aurrerabidea, krisia eta askabidea.
 - Ekintza/erreakzioa: egoera planteatu bati eman dakizkiokeen erantzunak.
 - Desira eta desiraren ukazioa: protagonismoa eta antagonismoa.
 - Barrengo eta kanpoko ekintzak: sentimentuak, pentsamentua eta ekintza.

Prozedurak

1. Ekintza sekuentziatu, jestuzko nahiz egonkerazkoen gainean jokuak egitea, titereentzat zein aktoreentzat.
2. Taldeka ekintza sekuentziatuak modutzea, gorputzezkoak eta soinuuzkoak.
3. Baliabide espazialak, gorputzezkoak eta soinuuzkoak erabiltzea.
4. Gatazkaren esplorazioa, barrenean protagonista, antagonista, harremanak, espazioa eta denbora direlarik.
5. Testu ber bati esangura ematen dioten ekintza diferenteak interpretatzea.

Jarrerak

1. Ritmoaren zentzua barne esperientzia gisa baloratzea edo kanpo akuilu gisa.
2. Taldearen ekintza proposamenen aurrean jarrera harkor eta kritikoa izatea.
3. Teatro obra bat baloratzea antzestutako gatazkaren bilakatze ritmotik abiatuta interpretatzea.

4. Multzoa. Testua

Multzo honek, antzesten denaren edukia hartzen du aintzat. Horren barrenean, kontakizunaren sorrera dago, haren esplorazioa eta azterketa... Kontzeptu hauetan barnako ibilbidea bi aldetara egin dateke, segun eta helburua zein den: testu dramatikoak sortzea edo besteren testuak aldeztetik aztertzea. Zilegi litzateke, halere, multzoa erdiko bi kontzeptuetako batetik abiatuta lantzea, baldin eta teatroak literaturatik aparteko errealitate berezi gisa daukan espezifitatea kontutan hartzen bada.

Kontzeptuak

1. Gaia: aurretiazko asmoa.
2. Doinua: tragikoa, komikoa eta dramatikoa.
3. Trama: ekintzen kateamendu logikoa.
 - Egituraren azterketa: testua eta azpittestua.

- Pertsonaien ezaugarrien azterketa: ezaugarri fisikoak, aurrekariak, helburuak eta motibazioak.

4. Argumentua: kontraeraren sintesi kronologikoa.

5. Testua:

- Idazkera teatrala. Prozedura teknikoak eta premia estetikoak.
- Lengoaia adierazkorra (jestuala, hitzezkoa, mimikoa etab.) eta egoera dramatikoarekin eta antzeste estiloarekin duen erlazioa.

Prozedurak

1. Historia dramatizagarri baten bersorkuntza aurretiazko testu batetik abiatuta, haren osagai batean edo gehiagotan aldatetak sartuaz (espazioa, denbora, gatazka, pertsonaiak edo askabidea)

2. Historiak taldeka sortzea taldekideen aportazio inprobisatu eta sekuentziatuen laguntzaz.

3. Taldeka egoera dramatiko bat sortzea gai, pertsonaia eta bar berberetatik abiatuta.

4. Testu dramatikoak eszena eraldatzearen bidez.

5. Testu dramatikoen manipulazioa.

6. Gidoiak egitea taldearen inprobisazioetatik abiatuta.

7. Testuen irakurketa adierazkorra.

8. Aurretik plangintza eginda teatro testu labur bat sortzea, osagai guztiak biltzen dituen.

9. Hedabideetan agertu diren gertaerak hartu eta haiekin idazketa teatrala egin.

Jarrerak

1. Adierazpena errealitatearekin interakzioa egiteko bide gisa baloratzea.

2. Portaera indibidual eta sozialen azterketa kritikoa.

3. Teatroa baloratzea ingurunearekin lotura duten ideiak nahiz sentimentuak komunikatzeko bide gisa.

4. Teatroa plangintza sistematikoko prozesutzat jotzeko jarrera.

5. Multzoa. Eszenako adierazpen baliabideak

Multzo honek aipatzen du zer beste teknika eta lengoaia espresibo menderatu behar diren teatro egintza bere osotasunean zeinu amalgama gisa ulertzeko.

Kontzeptuak

1. Ikusgaia:

- Eszenarioa eta eszenografia: jantziak, karakterizazioa eta atrezzoak.
- Argitzapena: irudia baliabide hezitzaile gisa eta teknologia gisa: bideoa, proiektzioak...

2. Entzungaia: Ikuskizunaren musika: musika konposizioak, girotze musikala eta koreografiak. Soinuztatzearen teknologia.

3. Eszena gaineko adierazpen baliabideak eta testu dramatikoak: egokitasuna, koherentzia, integrazioa.

Prozedurak

1. Eszena eremu ez konbentzionalak diseinatu eta planifikatzea aurrez landutako ekintza edo eszenak antzesteko.

2. Testu dramatiko batetik abiatuta eszenografia inprobisatuak sortzea, hartarako inguruneko osagai eta materialak erabiliz.

3. Eszenak inprobisatzea atzekalde eszenografikotzat balio duten eszenak proiektatuz.

4. Zirriborro eta eskema eszenografikoak marraztea testu dramatiko baten premia espazialeetatik abiatuta.

5. Eredu eszenografikoak eta maketak egitea, ikuslearen pertzepzio premiak kontutan hartuz.

6. Pertsonaia bat berarentzat figurinak egitea.

7. Argiak espazio bat berean manipulatzeko adierazpen premia diferenteei kasu eginaz.

8. Eskema ritmiko, kanta eta musika konposizioak, joku dramatiko gisa edo muntaiako osagai gisa.

Jarrerak

1. Teatroa diziplina arteko prozesutzat baloratzea, arte guztien biltzailea.

2. Baliabide teknologikoen eskeintzen dituzten aukera estetikoak baloratzea.

3. Adierazpenaren ekonomia baloratzea teatro ikuskizunetan.

4. Ikusentzutezkoen ahalbide dramatiko eta adierazpenezkoak bilatu eta ikertzea.

6. Multzoa. Muntaiia

Multzo honek sintesi izaera izan behar du, lehengo multzoetan aipatu kontzeptu, prozedura eta jarrera guztiak biltzea baitu helburu, eszenifikazio bat egiteko asmoz, talde lan solidario eta sistematiko baten fruitua.

Kontzeptuak

1. Plangintza: proposamenak, premiak, taldeak, epeak. Funtzionamenduaren organigrama eta erabakitze mekanismoak.

2. Muntaiaren prozesua:

- Testuaren analisisa.
- Eszena eta multzoen entseia
- Eszenografia, jantzi, argitzapen soinu eta abarren produkzioa eta burutzapena.
- Promozioa: publizitatea, kartelak eta esku programak.
- Antzespina: burutzapena eta ebaluazioa.

Prozedurak

1. Gidoiko egoera, pertsonaia eta premietara hurbiltze saioak egitea.

2. Espazio eszenikoa taldeka diseinatu eta itxuratzea (eszenografia), eta bai espazio teknikoa (argitzapena, soinua, efektu bereziak), karakterizazio osagaiak (jantzia eta mikilaia) eta antzespenerako behar den atrezzoaren ere.

3. Mahai lanak eta obraren parte diferenteen entseiuak egitea.

4. Antzespenean parte hartu behar duten talde guztiak koordinatu eta doitzea.

5. Iragarki, kartel eta esku programak.

Jarrerak

1. Talde proiektu batekin identifikatzea.

2. Talde lanetan jarraitasuna eta erantzukizuna izatea.

3. Teatro ihardun guztietan behar diren eginkizun guztiak onartu eta baloratzeko prest egotea.

4. Ustegabeko egoeretara egokitzeko prest egotea.

5. Norbere lana eta besteena kritikoki eta objetiboki aztertzea.

6. Lan bat bururatu beharreko epeak errespetatzeko konprometzua.

7. Muntaia egiteko erabili diren materialak, berriak edo botatzekoak, solidarioki erabiltzea.

8. Antzespenak baloratzea lantalde oso baten ahalegina diren partez.

7. Multzoa. Ikusleak

Multzo honen helburua da ikasleari teatro bidezko komunikazioan ezinbestekoa den beste osagai bat ezagutzera ematea: ikusleak eta haien jasotze mekanismoak.

Kontzeptuak

1. Teatro bidezko komunikazioa:

- Ikuslea teatro jokuaaren konplize oharraren gainekoa (konfabularioa).
- Ikusle eta ikuskizunaren arteko, eta ikusleen beren arteko feed back delakoa.
- Teatroa: espazio soziala.

2. Espazio eszeniko eta publikoa.

3. Eszenifikazioa eta ikusleak: identifikazioa eta urruntzea.

4. Ikusleen manipulazio ideologiko eta estetikoak: teknologia, publizitatea, hezkuntza...

Prozedurak

1. Ekintza edo sentimentuen arakapena.

2. Ikusleek beren oldez eta modu askotara parte hartzea beharrezkoa duten ekintza dramatikoak inprobisatzea.

3. Eszena bat berak espazio teatralaren puntu zenbaitetatik ikusita izan ditzakeen komunikazio prozesuak konparatzea.

4. Ideia, gai edo eszena ber batetik abiatuta muntaia diferenteak egitea.

5. Teatro muntaia guztiek berekin duten lan izkutua baloratzea.

DRAMATIZAZIOA. MATERIAL DIDAKTIKOAK

Ignacio Aranguren Gallués

Vicente Galbete Martiricorena

M^a José Goiache Romeo

M^a Teresa Pascual Bonis

Itzultzailea: Eneka Maiz Ulaiar

"Nire hutsuneak zuen burutazioekin ordezka itzazue. Gizon bat milarekin biderkatu eta berariazko ejerzito bat sor ezazue. Zaldiei buruz ari garenean, imajina itzazue lur biguinean beraien apo sutsuen oinatzak uzten, zuen imajinazioak baitira gaurkoan errege-erreginak jantziko dituztenak, hara eta hona garraiatu, denboraren zaldiaren gainean igo, ordubeteen urtetako gertakizunak pilatu..."

William SHAKESPEARE, *Enrique V* (I Ekitaldia, Aitzinsolasa).

SARRERA

Iharduera honek badu Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasmailetan nolabaiteko tradizioarik, eta ikastetxe batzuetan antzerkia eta heziketa bikotea uztartzeko duten betiko ohitura du eredutzat. Hezitzaile eta gurasoak ados egon ohi dira, ia aho batez, egokia eta osasungarria dela ikasleak, noizean behin, antzerkiaren mundura hurbil daitezen eskolako urteetan. Antzerkiak asko lagunduko omen die norberarenganako nolabaiteko ziurtasuna lortzen, lotsa gainditzen, eta baita sofa eta telebistarekiko joera ere; noski, ikasketak baztertzen ez diren bitartean. Esan ohi da, ikasle batzuk "antzerkilaritzarako balio dutela", batez ere xeblebre edo bizi fama hartuz joan badira. Eta, aldiz, neska-mutilak baldarrak badira, lotsatixeak edo motz samarrak, beno, ba... Orduan, antzerkia egitera ere apunta daizteke, baina argiaz ardura daitezela.

Behin taldea osaturik, jakina da: antzezlanak aukeratu eta borondate oneko irakasleek ordu eta adore pila bat jartzen dute ikasleek elkarrizketak buruz ikas ditzaten, pertsonaiak bereganatu ditzaten, zuzendariaren agindu eta oharra gehienak kontutan har ditzaten eta jantzi eta dekoratuak planifikatu zen bezala prest egon daitezen. Ordu ilun eta nekezak izaten dira, baina denak "buru belarri" aritzen dira uste dutelako egun horretan, guraso eta lankideen aurrean, egindako lanak saria izanen duela.

Eta zorioneko eguna heltzen da. Gainera, ziurrenik, eskolako egutegi barruko festaren bat izango da. Hiruilabete bukaera ospatuko da, edo ikastetxearen egunean, edo, asko jota ikasturte horretan antolatutako kultur iharduera batzuetan. Azken orduko prestaketak, ezin lorik egin, eta izugarritzko urduritasuna. Zuzendariak duena eta ez duena ematen du xeetasun guztietara ezin iritsiz, eta despistatuenean gogora dezaten, azkeneko momentuan halako musika gehitu zela, edo eszena hura aldatu egin zela. Behingoz teloiak gora egiten du. Halere, hau metafora hutsa da, ziurrenik soinketa gela deseroso batetan gaudelako, edo denetarako erabiltzen den gela batetan, ikastetxeko estamentu guztietako jendez leporaino. Halere, trabak traba, hor dugu miraritzoa: "halako" primeran moldatzen da estrenoan, eta agindu bezala egiten du dena; "beste batek" bere burua gainditu, artearekin bat egin eta entsaioetan inolaz ere somatu ez genuen talentua agertzen du; akatsak estaltzen dita troupeak erreflejoak pilpilean dauzkalako; ikusleek jada ez dute kideez par egiten, pertsonaiez egiten dute par.

Arrakasta galanta. Seme-alaben txaloek eta gurasoen oihuek horixe erakusten dute. Bideoz ere grabatu da, eta argazki mordoxka dago. Kritikek ere bategiten dute eta emozioz

beteta izerdi patsetan dauden antzezleei "profesionalak baino hobeak" direla esaten dienik ere badago. Urliak papera behingoz osorik esan zuenez, errepartoko itxurosoena ez zela esan beharra badago ere, irakasleari hurrengo lana zein izango den galdetzen dio, berak papera luzeagoa nahi baitu... Baina Sandia ere, gainontzeko guztiak bezala, "antzerkiaren pozoinak" harrapatu du goxo-goxo.

Sarrera gatz-ozpindu samar honetan askok geure burua isladatuta ikusten dugu. Balio beharko luke, karikatura moduan, egin behar ez dena ikustarazteko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculumean antzerkilaritza aukerako gai moduan planteatzen denean.

Oro har, heziketa mailako antzerkian *emaitza* (antzezlan) prozesuaren aurretik jartzeko ohitura dago, prozesuak berak hezkuntzari eman diezaiokeen aberastasuna eta jokua baztertuz, nahiz eta, jakina *prozesuak* beti emaitza dakarren azken buruan.

Hain zuzen ere, horrexegatik *Dramatizazio* izena du hautazko ikasgai honek, beste izen batek zuzenean antzerkilaritzarekin nahastera bultzatzea zezakeelako, eta modu honetan, nahita edo nahi gabe, aurretik emandako testu bat antzeztera mugatu daitekeelako, tradizionalki egin ohi den modura.

Gomendagarria litzateke, ikastetxean nahasketak egon ez daitezen, Dramatizazioa eman behar duen irakasleak ikasleei argi eta garbi azaltzea ikasgaiaren nondik-norakoak, hartzea erabaki baino lehen. Horrela uste asko bazter daitezke antzerkilaritza lantzearen kontura, eta Dramatizazioa aukeratuko duen ikasleagoa motibatzeke balio du.

Egia esan, antzerki muntai bat egitea baliabide metodologiko egokia izan daiteke. Baina honek ez du taldeak izan dezakeen sormena eten behar, ezta lortu nahi den prozesu globalizatzailea burutzeko eragozpena izan behar. Balio beharko luke kide guztien proposamenak gauzatzeko, eta ez buru belarri emaitza artistiko baten bila ibiltzeko, zeina, gainera beste norbaitek epaituko duen. Honetaz, halere, aurrerago hitzeginen dugu.

Dramatizazioaren prozesua defini daiteke, ohizko *antzerkilaritza* kontzeptua ez bezala, dramatizazioa motorra izaki, antzezpena berezko duen prozesu moduan, antzerkilaritzaren pare. Ahotsa, gorputza, espazioa eta eszenaren denbora erabiltzen ditu besteei ideiak, sentimenduak eta bizipenak estekikoki adierazi eta komunikatzeko, antzezle eta ikusleen arteko rolak garbi berezita ez daudelarik, elkar trukagarriak baitira.

ORIENTABIDE OROKORRAK

1. Dramatizazioaren ezaugarriak

Lau dira dramatizazioaren ezaugarri nagusiak, eta hezkuntzan baliogarri egiten dutenak:

Aktiboa

Dramatizazioa ez dago aurrera eramaterik jarrera rezeptibotik edo mimetismo hutsetik. *Kide guztien partaidetza* zuzena eskatzen du, adierazpen eta komunikazio prozesuan eten gabe egokituz eta atzera bihurtuz (*feedback*).

Dramatizazioan, antzerki ikuskizunean ez bezala, antzezle eta ikusle lanak ez daude argi bereiztuta, eta elkar trukagarriak dira edozein unetan.

Globalizatzailea

Dramatizazioa globalizatzailea da, disziplina aniztasunaren ikuspegiari bidea emateaz gain, behar-beharrezkoa duela esan baitaiteke. Dramatizazioak kultura eta giza gaiekin lotura handia dauka, hizkuntzarekin, plastikarekin, musika eta heziketa fisikoarekin. Halere, Dramatizazioa tradizionalki giza zientziekin lotu izan den arren, teknologia berriak, eta ustez gai honekin hain hurbil ez daudenak, fisika edo matematika, esate baterako, proiektu globalizatzaile baten barruan sar litezke Dramatizazioarekin batera. Hain zuzen ere, gai honetan burutzen diren ihardueretan beste ikasgaietako edukiak landu ohi dira. Batzuetan nahita eta programaturik, eta beste batzuetan "izkutuko curriculum" moduan.

Baina Dramatizazioaren izaera globalizatzaileak *arloan pertsonalean* ere badu eraginik, parte hartzen dutenen nortasuna buru belarri inplikatzeko baita ihardueretan (alderdi kognitiboa, eta baita emozional eta afektiboa ere). Ariketak egiterakoan parte hartzaileak erabakiak hartu behar izaten ditu; batzuetan arrazionalki, eta beste batzuetan susmoen arabera, norberaren zaletasunen arabera, edo familiak, gizarteak eta kulturak duen eragin inkonszientearen arabera. Eta hau guztia ihardueretan pilpilean agertzen da. Hezitzaileak aurrez aurre oso gai aberts eta delikatuak izaten du, eta arreta handiz zaindu behar du.

Integratzailea

Ezaugarri honek ere bi alderdi dauzka bere baitan. Lehenik, Dramatizazioak ikasleari *alderdi kognitibo ezberdinak uztartzen* uzten dio, baina bere erara (“XVII mendeko morroi edo andere noble bat naiz, eta beraz, bizitzaz dudan izkuspegiak horrelaxe jokatzera bultzatuko nau”).

Bigarren alderdiaz ari garela, Dramatizazioa beti taldeka egiten dela esan daiteke. Dena irakasleak bultzatzen duen dinamikaren arabera gertatzen da, eta kideen arteko harremanaren arabera, eta ondorioz helburuak ere horrelaxe gauzatzen dira.

Ikasgai honen hasieran, nahi eta nahi ez, taldearen lotura landu beharko da desinhibizioa eta integrazioaren aurrean, elkarlana eta solidaritate arauak ondo barneratuz, pertsona guztiek besteeiko errespetoa izan dezaten, eta beraiek ere errespetatuak izan daitezen.

Estetikoa

Dramatizazioaren jardunak izaera estetikoa du, batez ere. Ikaslegoari eskaintzen zaizkion esperientzietan gozamen estetiko handia dago, intuizio irrazional eta atsedean emangarri handi batekin batera. Pertsonaiaren bidez bere nortasuna adierazten du eta kanpotik dituen eraginak somatzen zaizkio. Aldi berean norbera eta beste norbait izateak ematen dio aktoreari gozamen estetikoa eta motibazioa, nahiz eta lantzen ari garen mailan bizipen honen sakontasunak bere mugak badituen. Honek ikaslea estereotipo gutxiagoz adierazten laguntzen du, eta sakontasun gehiagoz komunikatzen eta arteaz gozatzen ikasten du artea sortzen den une berean.

2. Dramatizazioa eta nerabezaroa

Bai bakarkako lanean eta bai talde lanean oinarritzen den ikas-irakaskuntza prozesu honek zeregin itzela hartzen du eta justifikatu egiten da nerabezaroa garatzen den garaian, garai honetako heziketaren ezaugarri guztietan eraginik izan dezakeelako, norberaren izakeraran alderdi integratzailea landuz, lehen esan bezala. Hona eskema honetan xeheki adierazita:

Dramatizazioak nerabearoa bilakatzen den garaiari aporteratzen diona.

Kognitiboki:

- Adierazpen kode aniztasuna (linguistikoa, keinuak, espazioa, plastika, soinua...).
- Sormena eta gusto estetikoaren garapena.
- Ezagutzaren integrazio eta globalizazioa.

Elkarrekiko harreman mailan:

- Sozializazioa.

Norberaren oreka mailan:

- Nortasunaren prestaketan.
- Autokontzeptua, autoestima, autokontrola.

Motrizak:

- Norberaren gorputza onartzea.
- Norberaren gaitasun eta trebetasunetan konfidantza izatea.
- Gorputz adierazpena.

Gizarteratu eta bertan aritzeko:

- Kooperazioa, parte hartzea eta kanpoko gauzak norberenganatzeko gaitasuna.
- Kulturaren balioak bereganatzea.
- Egozentrismo eta inhibizioak gainditzea.

3. Edukiak antolatzeke proposamena.

Zazpi eduki-multzoetako bakoitzari dagozkien prozedurak paraleloki antolatuak daude curriculumean, zailtasun mailaren arabera. Joku, inprobisazio eta antzezpen hitzak agertzen dira, eta esanahi zehatzarekin ulertu behar dira, arautegi zehatz bat jarraituz lantzen diren teknika dramatiko moduan, eta ez bere esanahi orokorrean, tokiz kanpo erabilitzea suposa baitezake.

- **Jokuak** azkar azaldu eta erraz egitekoak dira, eta ikaslea motibatu eta integratzen laguntzea dute helburu, gorputza eta ahotsa aurretik berotzeko balio dutelarik. Beste joku mota batzuk zailtasun handiagoko lan dramatikoak lantzeko daude bideraturik.
- **Inprobisazioak**, libreak edo irakasleak bideraturik izaki, rolak norbereganatzeko eta konfliktoak garatzeko gaitasuna bultzatzen du.
- **Teknikak eta antzeppen ariketek** errealitatea ulertu eta adierazteko prozesuak garatzeko balio dute (bai antzerkian, bai bizitzan).

Edukiak sekuenziatzean diseina litezkeen bide didaktikoetan, kontutan hartu behar da interpretatzean, curriculumak dioela aktorearen ikuspuntua hartu behar dela kontutan, hau da, ikaslearena.

Dramatizazioa ikusgaiaren bidez helburu ezberdinak lor eta landu daitezke aldi berean, eta ezaugarri honek irakaslea curriculumaren bloke batetik bestera eten gabe salto egitera behartuko du. Horrexegatik, curriculumean dauden edukiak uztartzen eta globalizatzen dituzten iharduerak ezin izango ditu baztertu.

Gai hau lantzerakoan, maiz, oso helburu jakina eta zehatza zuen halako ariketaren bidez, esate baterako, ikasleak deskubrimendu sortzaileen bidez hareago joan daitezke. Orduan honek duen interes didaktiko eta motibatzailea dela eta, irakasleak aprobeztatu egin beharko du egoera, eta aurretik programaturik ez zituen eduki berriak txertatu beharko ditu saioan. Alderantzizkoa ere ez da harrizkoa izaten: ustez oso motibagarriak iruditzen zitzaizkigun ariketekin, taldean emaitza ona izaten dutenekin, ez da hori gertatzen, sorpresa emateko eta bultzatzeko gaitasuna galdu dutelako, edo besterik gabe, ostirala edo astelehena delako, edo hurrengo edo aurreko orduko ikasgaiaren taldeak notetarako oso garrantzitsua den froga bat izan edo izango duelako, eta ondorioz, gaur beste galaxia batetan dagoelako.

Edukien sekuentziazioak uneoro **errebisagai** izan behar du, kontutan hartu behar delarik, ahal dela, saio bakoitzak, berez, bere bide didaktikoa har dezakeela. Horrelako moldaketak maiz gertatuko dira, eta hau Dramatizazioako irakasleak bere gaiaren funtsatzat jo beharko luke, egunero bere sormena eta motibatze gaitasuna jokoan jarritz.

Ez pentsa ondoren datorren edukien antolaketaren proposamena bere balio pedagogikoagatik edo efikaziagatik bereziki azaltzen denik. Irakaslearen irizpideari dagokio azken finean sekuentziazio aukera hau edo beste batzuen artean aukeratzea. Proposamen hau aukeratu da Dramatizazioak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan garatu behar dituen alderdi nagusien **adibide** moduan.

Edukien sekuentziazio proposamen mixtoa deitzen zaio, ohizko sekuentziazio linealaren ezaugarriekin batera, interesgune baten inguruko proposamen globalizatzaileagoak ere badituelako.

Gaia hiru etapatan garatzen da, eta alderdi asko amankomunean dituzten arren, bakoitzak indar ezberdina dakar berarekin. Etapak *Trebakuntza*, *Sakontzea* eta *Globalizazioa* dira, eta ez dute zertan luzera berdinekoak izan behar ikasturtean zehar.

Trebakuntzaren etapa:

Atal honen zeregina, gehientzako berria izango den lan prozesuaren oinarriak ezartzea da. Hasierako saio hauen ezaugarri nagusiak hauek lirateke:

- Gaiarekiko motibazioa, zaletasuna eta interesa bultzatzeko ariketak dira nagusi.
- Lehenengo hiru eduki multzoetan (Pertsonaia, Tokia eta Egoera dramatikoak) oinarritutako mota askotako ariketak. Ikasleak joku, inprobisazio eta teknika ezberdinetan trebatzen den bitartean, irakasleak hasierako ebaluaketa egitea da helburua, komeni zaion bide didaktikoa aukeratuz joan dadin.
- Serioa izan arren, atsegina eta ludiko den giroa lortzen saiatu behar da.
- Talde ariketak egin behar dira batez ere, bakoizaren joerak lagun artean eta giro eroso eta integratuan onar ditzakeen talde bat bultzatuz. Hasieran ikasleek arteko harremana hartuko da kontutan azpitaldeak egiteko, baina berehala bide aleatorioak erabiliko dira taldea sendotzeko eta azpitaldeak desegiteko, inor baztertu ez dadin.

Hemen lantzen diren atal edo etapa bakoitzaren zehazpenean curriculumaren bi helburu aukeratzen dira, eta hauetan egin behar da indar gehiena. Trebakuntza garaian hauek dira gehien landu behar direnak:

- Taldearen deshinibizio eta integrazioa lortu.
- Dramatizazioa lantzeko jakin behar diren oinarriko edukiak ezagutu eta deskubritu.
- Dramatizazioarekiko interesa eta kuriositatea zuzpertz.
- Joku dramatikoak arauak betez baloratu eta disfrutatu.
- Sormena, imajinazioa eta adierazpen gaitasuna garatu.

Sakontze etapa:

Bigarren etapa honetan edukiak, konplexuagoak oraingoan, erreurrenteki eta espiralean lantzen dira. Hauexek lirateke definitzen duten ezaugarriak:

- Ariketak ondo barneratu, komunikatu eta estetikoki ondo borobiltzea oso garrantzitsua da.
- *Pertsonaia* deitutako bloketik aurrera edukien arteko harremana lortu behar da.

- Progresiboki indibidualitateak eta ikasle bakoitzaren autonomiari garrantzia eman behar zaio ihardueretan.
- *Berriz ekitearen* proposamena erabili behar da konponbide landuagoak lortzeko.

Beraz, helburu hauek dira garrantzitsuenak:

- Gorputz, ahots eta keinuen kontrola lantzeko ariketak autonomoki lantzea.
- Espazio eta denbora kontzeptuak egoki erabiltzeko antzezpen ariketak egitea.
- Pertsonaia, egoera eta konfliktoak sormen handiz errepresentatzeko gai izatea.
- Antzezpenaren bidez norberaren sentimendu eta ideiak komunikatzeko gai izatea, adierazpen-hizkuntza ezberdinak erabiliz.
- Bakoitzak barruko mundua baloratzea norberaren izana delako, eta adierazpen gaitasun iturri handikoa delako.
- Gainontzekoen ideiak onartu eta errespetatzen jakitea, ikuspegi ezberdinak trukatzuz eta uste, norberekoitasun eta inhibizioak gaindituz.
- Norberaren eta gainontzekoen interpretazioa lan sistematiko, oso, sortzaile eta atsedean emangarri moduan baloratzea.

Globalizazio etapa:

Hirugarren etaparen helburua sormen prozesu batetan Dramatizazioan parte hartzen duten elementu guztiak uztartzea da. Ezaugarri nagusiak hauexek lirateke:

- Eduki guztien ardatza izanen den interesgune edo elementu globalizatzaile bat aukeratu eta erabiltzea: gai bat, norberaren edo beste norbaiten testu bat, toki bat, pertsonaia bat, zeharkako gai bat... estimulo bat.
- *Textua, Expresio bide eszenikoak, Muntaiak eta Ikuslegoa* eduki multzoek garrantzi handia daukate.
- Egindako lana ikusleen aurrean azal daiteke, nahiz eta etapa globalizatzaileak ez duen zertan bukatu behar eszenatoki batetan aurkeztuz.

Ikasturtearen azken etapa honetan, aurreko etapetan gradualki landutako eduki guztiak prozesu sortzaile batetan uztartzeko balio duten gaitasunak garatzea da garrantzi gehien duena:

- Elementu guztiak dituen testu teatral motz bat sortzeko gai izatea, aurrez planifikatu ondoren.
- Aurretik ikusitako ikuskizun edo testu dramatiko hainbat modutan diseinatu eta eszenan interpretatzen jakitea.

- Proiektu kolektibo batekin identifikatzea, kooperazio lanetan konstantzia, eta erresponzabilitatea edukiz.
- Ikusleen zeregina komunikazio teatrolean beharrezkoa dela baloratzea.

4. Metodologia.

Dramatizazio saioetako metodologia **parte hartzailea** eta **aktiboa** da. Aktorea aktuatzen duena da. Esan bezala, gainera, Dramatizazioan aktore eta ikusle rolak ez daude argi bereiztuta, ariketa gehienetan trukagarriak direlarik. Beste norbaiten inprobisazioa ikusten ari den ikusle batek esku hartzeko prest egon behar du irakasleak edo ariketaren planteamenduak hala eskatzen badu, eta dagokion rola berehala bereganatu behar du.

Dramatizazio klaseko iharduera batzuetan *talde osoa* aritu daiteke, kide guztien inplikazioaz, baita irakaslea berarena ere. Hori gertatuko da, esate baterako, ebitaezinak diren hasierako ariketetan, edo baita hasierako integrazio eta desinhibizio ariketetan ere. Zer esanik ez egindako edo jasotakoaren balorazioa eta azterketa egiten den uneetan.

Beste ariketa batzuk, aldiz, *talde txikitik* egingo dira. Eszena edo inprobisazio asko horrelaxe egin eta planifikatzen dira, bai binaka, bai hiru edo asko jota baita bosteko taldetxotan ere. Talde txiki batek ariketa bera egiteak egondako planteamendu, irtenbide eta aurkikuntzen aurrean azterketa eta eztabaida interesgarriak egiten laguntzen du, bai norbera eta bai taldearen sormenaren esparrua aberastuz.

Bakarkako ariketak egitea ere beharrezkoa izaten da, eta irakasleak ikasle bakoitzaren egoera zehatz-mehatz jarraituko du. Ahotsa, erlajazioa, arlo sensoriala edo emotiboa lantzeko ariketa askok ikaslearen jarraipen indibiduala behar du, ariketa egiteagatik besterik gabe egin ez dadin.

Honekin zuzenean lotuta dago Dramatizazio klaseko eguneroko lanaren garapena baldintzatuko duen gai bat: gela bakoitzean dagoen *ikasle kopurua*. Dramatizazioan lanari ez zaio etekinik ateratzen talde handiegitan. Sorpresa, etengabeko sormena, ariketa batetik bestera naturalki pasatzea, erritmoa, taldean taldearekiko dagoen konfidantza, irakasle batzuetan ikusle eta beste batzutan parte hartzaile bihurtu behar izatea, bapateko aurkikuntzei unean bertan etekina ateratzea... ezinezkoa da talde handi batekin. Ikas-iharduera honetarako kontzeptu, prozedura eta baloreak alperrik galtzen dira gogoek ihes egiten dutenean eta taldea aspertzen denean.

Dramatizazio gelako kide kopuruak *ez luke 20 baino gehiagokoa izan behar*. Halere, gutxieneko kopurua ere ezar behar litzateke, sexu, izakera eta interes anitzak egotea ere oso interesgarria baita. *Gutxieneko kopurua 8koa* izan daiteke. Dramatizazioko lanetan taldeak aleatorioki hainbestetan egiten direnez, kopuru txikiago batekin ezingo litzateke egin, eta

sormen estiloetan taldearen edo pertsonaren jarrerak errepikagarriak eta aurretik-jakinak izan daitezke.

Honetan badago beraz, adostasunik: *Dramatizazioko ikasle kopuru egokiena 16 eta 18 lagunen artean dago*, eta ez irakaslearen mesedetarako delako, ikasgaiaren izaerak eskatzen duelako baizik. Han-hemenka antolatzen diren antzerki ikastaroetan onartzen den kopurua hauxe izan ohi da. Kopuru hau aldatzeak badu eraginik metodologian, eta edukiak sekuentziatu eta ikas-irakasketa ihardueretan ere kontutan hartu beharko da.

5. Irakaslearen zeregina.

Irakaslearen nortasuna eta izaerak du azken hitza ikasgai bat aurrera eramaterakoan. Hau begibistakoa da edozein ikas-prozesutan, baina are gehiago Dramatizazioan. Ikasgai honetan irakaslearen zeregina aniztasuna eta iharduera bakoitza lantzeko moduak eragin zuzena dauka emaitzetan.

Dramatizazioan ikasleak buru belarri inplikatu behar du. Hasierako oinarria ez da norberak dakiena, edo ez dakiena. Hasierako oinarria, zorionez, *norberaren izaera* da. Planteatzen diren ariketetan alderdi onak azaldu egiten dira, baina baita arantzak ere. Irakaslearekin gauza bera gertatzen da. Parte hartzaile ororentzako iharduerak probetxugarriak izango dira bakoitzaren inplikazioaren arabera, eta ihardueren zergaitia eta helburuak norberegantzeko duen gaitasunaren arabera. Amaieran zerbait mugitu da guztien baitan. Ikasle batek kale imajinario bat gurutzatzeko 30 modu ezberdin asmatzea oso ariketa ona izan daiteke sormena, gorputz desinhibizioa eta talde integrazioa lantzeko... edo bestela beste ariketa zailagoak egiteko beroketa fisiko eta sikikoa izan daiteke, besterik gabe. Baina denbora par egiten pasatzeko modu hutsala ere izan daiteke, aurreko eta hurrengo ariketetan bezalaxe.

Hasiera, zailena denez, irakasleak giro hotza hautsi eta berak eman beharko die hasiera jokuaren ariketei, ustekabeko inprobisazioak eginez, beharrezkoak edo bapatekoak direla ikus dadin. Azken finean, egiten ari dena heldu baten ikuspegitik ere garrantzitsua dela hitzak erabili behar izan gabe adierazteko balio du. Eta ez da ahantzi behar modu honetan irakaslea konturatuko dela esperientziaren bidez bibliografian hain erraz ematen zuten ariketa askok egiterakoan ustekabeko zailtasun maila haundia dutela. Edo ohartuko da metodologia mailako hutsen bat dagoela paperean hain erraza eta lotua zirudien sekuentziazioari trabak jartzen dizkiona, jarraitu beharreko tarteko pausoak xeheki banatzen behartuta dagoelarik.

Dena dela, gogoan izan Dramatizazioan hasi berri den ikasle gaztetxo bat *epaitua* dagoela sentitzeak baino gehiago ez duela ezerk blokeatzen. Irakaslearen ardura izanen da bete-betean, ikasle bakoitza errespetatua, baloratua eta guztiek lagundua sentitzea antzerki jokuen arauekin *konplizitate* jatorra izan behar duen taldearengandik. Hau lortzen ez bada,

Dramatizazioko klasea batzuentzako esperientzia mingarri bihur daiteke, tentsioz, antsietatez eta irri-urduriz beteta, nerabezaroko konplexuak areagotzen lagunduz.

Ikasle gehienentzat edozein iharduera berritan beti irakaslea izaten da eredu. Beraz, irakaslea ikasleengandik jasotzea espero duen berbera ematen lehenengoa izanen da. Ez luke kanpoko epaile izatera mugatu behar, ezta ikasleek errepikatu beharreko expresio arauak ezartzen dituen eredu ere. Aldiz, berak ere joku teatralean jolasteko prest egon beharko luke, erabat murgilduz eta sortzaile izanez; joku horretarako gaitasuna duela erakutsi beharko du, sentsibilitate artistikoa duela eta gizakiaren izakeraren xehetasunak bereganatzeko gai dela. Ikaslegoaren erantzuna ikusirik hasierakoa aldatzeko moduko moldagarritasuna duela ere erakutsi beharko du.

Bultzatzaile, begirale, buru, probokatzaile, irakasle: hitz hauek taldean izan behar duen tokia ondo definitzen dute. Baina erakutsi baino gehiago, mobilizatu, konprometitu, bultzatu eta bideratu egin behar du, eta ikasleak (hauxe baita benetako protagonista; bakarra) ematen duen guztia adierazigarri, komunikagarri eta ebaluagarri egiten lagundu.

Azken finean, dramatizazioko irakasleak miazteko bideak proposatzen ditu (*azaleratzen laguntzen du*), erantzun pertsonalak bilatzen bultzatzen du (*forma ematen laguntzen du*), eta aurkitutako gauzak eta izandako arazoak objektibetzen laguntzen du (*baloratzen laguntzen du*).

6. Ordu-tegi antolaketa.

Beroketa ariketak, bai fisiko eta sikikoak, beharrezkoak dira saio bakoitza baino lehen. Egon litezkeen, edo beharrezkoak diren jantzi aldaketak, tokiaren egokiera, toki aldaketak e.a. direla eta, Dramatizazio saio bakoitzaren denbora erabilgarria murriztu daiteke, baldin eta ordubeteko saioak programatu badira eta gainera astean zehar sakabanatutakoak. Askotan giro aproposa lortu ondoren saioa moztera behartuta egongo ginateke egunak pasatu ondoren utzitako giroari eusten saiatuz, eta horrela denbora, motibazioa eta efikazia galduko genuke. Bestalde, edukiak arraz zehatz mehatz planifikatu beharko lirateke, eta horrela edukia elkarrekin lotzeko edo sormen prozesuaren sorpresaren bidez taldeak lor ditzakeen perspektibak aztertzei aukerak galdu egingo lirateke.

Horrexegatik, ikasgai hau lantzeko denbora *ordubete baino luzeagoko saioetan* biltzea da gomendagarria, nahiz eta saioa astean behin bakarrik egin behar izan, edo aukerako ikasgai hau lauhilabeteko moduan planteatu behar izan.

Batzuetan gai honetako iharduerak *ohizko ikas orduetatik kanpo* egin litezkeela ere hartu behar da kontutan. Horrela gertatuko da, esate baterako, ikastetxetik kanpo egiten diren ikuskizunetara joan behar bada, herriko ohizko toki eta orduetan egiten direnean. Ikastetxetan aritzen diren antzerki talde profesional edo afizionatuak ikustera joaterakoan ere gauza bera gertatuko da, klase ordutik kanpoko ordutegian aritzen dira eta. Eta noski, ez da

ahantzi behar Dramatizazioko taldeak berak edozein ikuskizun xume egiten baldin badu ere, klase ordutik kanpoko ordu batzu, edo asko batzu erabiltzera beharturik egongo garela.

7. Gelaren antolaketa.

Dramatizazioan egin behar diren ekintza ezberdinek baldintzatuko ez dituen toki moldagarri bat behar dute, eta bide batez ikastetxeko eguneroko ihardueretan oztoporik jartzen ez duena.

Iharduera Aretoa, baldi badago, gaia lantzeko toki aproposa litzateke. Halere, askotan, hasierako maila lantzean, toki hau beste edozein baino handiagoa denez, traba batzuk ditu, eta hau aurretik ikusi eta konpondu behar da. Handiegia den toki batek taldearengan dispertsioa sor dezake, elkar ondo ikustea ere eragotzi dezakeelarik. (Aldez aurretik espazioari eman behar zaizkion irtenbideak *italiar erara* konpontzen bultza dezake, espazioaren beste erabilpen sortzaileagoak baztertuz). Ikasleak antzezpena gehiegi puztu ere egin dezake, edo emaitza ikusgarri baten bila ohizko antzerki klitxeak erabili. Hau da, azken finean, antzezteko tokia eta behatzeko eta azterketa kritikoa egiteko tokia erabat bereizten badira, batzuk ez dira ariketa asko egiten ausartuko. Tokiaren planteamendu hau kontutan hartuta, ondo legoke, hasieran behintzat, antzezteko eta behatzeko tokia bera izatea, teloa edo gortinak itxita edukiz, taldearen hainbat beharretarako espazioa izan ahal izateko.

Soinketa gelak ere toki alternatiboak izan daitezke, nahiz eta maiz konponbiderik gabeko tenperatura, akustika eta barru eta kanpo iluminazio arazoak egon ohi diren.

Halere, erabili behar den tokiak, Iharduera Aretoa izan, Soinketa Gela izan, ikasgela arrunt bat izan edo Erabilpen Anitzeko Gela izan, aukera hauek izan behar ditu:

1. Handia, moldagarria eta trabarik gabekoa.
2. Arnasbide higienikoa izatea.
3. Hitz egiteko eta musikarako akustika nahikoa.
4. Iluminazio orokorra, eta erabateko iluntasuna lortzeko aukera.
5. Oinarrizko fokoen loturaren bidez berehala giro ezberdinak sortzen laguntzen duen instalazio elektrikoa.
6. Egurrezko edo kortxoazko zolua, eta hau ez balego, hotzetik babes dezakeen moketa bilgu bat, aise jar eta kendu daitekeena.

Baldintza txarretan ere, ikasgela arrunt batean landu liteke gai hau, momentuan altzariak baztertuz, eta zolua probisionalki moketa edo gomaz estaliz. Hori bai, ikasgai hau gainontzeko ikasgaietatik bereiztuta eta fisikoki urrunduta egotea zaindu beharra dago, elkarren eraginik egon ez dadin (ahotsa ariketetan, adibidez) eta bapatekotasuna gal ez dadin.

8. Beharrezko baliabideak.

Dramatizaziorako bakarrik areto bat izatea ezinezkoa bada, ondoan txoko osagarriren bat behintzat egon beharko da, beharko diren tresnak gorde ahal izateko. Tresna hauetako batzuk ikastetxeetan egon ohi dira, eta ikasgeletan egunero lanean erabiltzen dira:

Material teknikoa

- Soinu ekipoa (kaseta edo minikaseta portatila).
- Bideo ekipoa (kamara, erreproduktore eta telebista).
- Proiektagailua (diapositibak, gardendegiak).
- Foko, trebede, lotura eta kolore filtro batzuk.

Dramatizazio kutxa

Jostun baten moduan, altzari honek joku eta inprobisazioetarako ohizko gauzak gordeko ditu: oihal, makil, soka, maskara txuriak, oinarrizko "atrezzo"-ren bat (platera, ontzi, mahairako tresnak, liburu, aldizkari, e.a.). Erritmoak sortzeko perkusio tresna arrunt batzuk oso erabilgarriak izango dira.

- Eszenografiak inprobisatzeko modulo geometrikoak.
- Mahai txikiren bat eta aulki batzuk ariketa batzuetan erabiltzeko.
- Oinarrizko makilaia: oinarri argi eta ilunak, eta koloretako barrak.
- Oinarrizko tresnak dituen kutxa: goraizeak, grapagailua, mailuak, aliketak, destornilagailuak, esku zerra, iltzeak, tirafondoak, kola plastikoa, margolari zinta, brotxa, pintura plastikoa, e.a.
- Kartoizko eta kortxo txurizko (porexpan) txafiak, biltzeko papera, pintzelak eta errotulagiluak.
- Botatzeko gauzak edo berziklatutakoak: egunkariak, kartoi kutzak, artile pilotak, oihalak, plastikozko botilak, e.a. Arropa neutro samarrak.
- Erratza eta biltzailea, zakarrontzia eta zakar poltsak.

Ikaslegoak arropa eroso eta zapata egokiak beharko ditu ariketak egiterakoan eragozpen fisiko eta sikikorik ez izateko, bai mugimendu handiko ariketetan, erlajaziokoetan edo tresna eta margoak erabiltzekoetan ere. Ikasleak bere kaleko arropak eta eskolako gauzak txukun uzteko toki jakin batzuk egotea ere oso erabilgarria da, gelan nonnahi eta nolannahi utzi behar ez ditzan.

9. Ebaluaketarako orientabideak.

Sormen prozeduren ebaluaketa ez da oso begi onez ikusten, seriotasun ezagatik, edo balorazioak subjektiboki edo nola edo hala egiteagatik, edo irakasle gehienek eskutan ez dauden neurketa teknika bereziak ezagutzea beharrezkoa dela uste izateagatik.

Dramatizazioa talde jakin baterako nahi, helburu, ekintza eta ebaluaketa mekanismoetara egoki diseinaturik ez badago, denborapasa hutsa bihur daiteke. Hau da, berria, dibertigarri samarra, eta mamirik gabeko ariketa, guztiak saiatzen direlarik, baina batez ere irakaslea, zerbaitetarako balio izango duelakoan, itxaropen galdu batek bultzaturik.

Askotan Dramatizazioan, ez da irakaslearentzako erraza izaten batetik parte hartzaile eta bestetik bilakaeraren behatzaile izatea. Beraz, edozerk balio al du? Zerk balio du gehiago, taldeari, irakasleari edo ikusleei gustatu zaienak? Norberaren erantzunak ondo edo gaizki daude, horrela delako, besterik gabe, edo ikasleari horrela atera zaiolako? Ze eredu edo tipo estetiko da erreferentzi? Zer da egin behar dena Dramatizazioan Ongi bat lortzeko?

Baina proposatzen den ariketa bakoitzak berarekin helburu eta metodologia bat dakarren moduan, gelan egiten den orok ebaluaketarako bideak izan behar ditu diseinaturik (uneak, prozedurak, eta irizpideak).

Ebaluaketa uneak: Noiz ebaluatu.

- **Hasierako ebaluaketa** erabat beharrezkoa da ikas-irakasketa prozesuak (bide didaktikoak) talde jakin baten ezaugarri eta nahietara moldatzeko. Iharduera bereziak antolatu beharko dira, edo hasierako saioetan ikasleekin batera diagnostikoa egiteari lehentasuna eman beharko zaio. Diagnostikatzeko ebaluaketa hasieran taldetan egin ohi da, hurrengo saioetan bakarkakoa egiten hasten delarik.
- **Saio bakoitza amaitzean**, aldiro "borobilean txanda jarraituz" teknika erabiliz galdera mota hauei erantzuna eman dakieke: "Zer da gehien gustatu zaidana?" "Eta gutxiena?" "Ari nintzela nola sentitu naiz?" "Zer iruditu zait interesgarriena?" "Zergatik?". Komunikatzeko txanda hauek talde integrazioa bultzatzen dute, eta bide batez irakasleak bere burua kokatzen du. Noizbehinka hau guztia landuago den idatzizko galdetegiren baten bidez osa daiteke.
- **Sortzailetasuna adierazten duten adierazleekin** zuzenean lortutako iharduerak ere nahita planteatu daitezke: hitz eta ideien jariora, objektuak ustekabean erabiltzea, estereotipoetatik ihes egiten duten erantzunak, bapateko asoziazioak, e.a. Iharduera hauek une jakinetan egin, bildu eta baloratu egin behar dira.
- Aldizka **iharduera globalizatzailerak** egiteak ikasle bakoitzak bere gaitasunak integratzeko duen moduz informazioa biltzeko balio du.

- Inprobisatzeko edo antzezteko teknika ariketa gehienetan, talde osoaren aurrean antzeppen txiki bat egin ohi da, talde txikika edo banaka, bata bestearen atzetik. Ikasleak irtenbide eta ikuspuntu ezberdinak aztertu eta alderatzen dituen bitartean, oso une aproposa da **bakoitzaren balorazioa** egiteko. Modu berean, eszena hauek egiteko prestatzeko denbora behar denez, irakasleak, ikaslea bideratzen laguntzen duen bitartean, bere beharren berri jasotzen du.

Ebaluaketa prozedura: Nola ebaluatu.

- Alderdi jakinak **zuzenean behatuz**, eta fitxetan bakoitzaren datuak jasoz.
- Ikasle bakoitzak betetzen duen **Dramatizazioko koaderno** behatuz. Horrexegatik, esan beharra dago idatzi behar diren ariketak (toki aldaketan eskemak, inprobisazioaren aurreko prestaketa, pertsonaiaren karakterizazioak, apunteak, e.a.) ez direla gero paperontzira botatzeko diren paper zatitxotan idatzi behar. Koaderno hau aldizka begiratuz, ikaslearen prozesuaren berri zabala izan daiteke.
- **Autoebaluazioa eta koebaluazioa** taldearen aurrean egitea ohizkoa da edozein antzeppen lan mailatan, eta prozedurak berbideratzeko sekulako laguntza ematen du.

Ebaluazio irizpidea: Zer ebaluatu

Dramatizazioko iharduera gehienetan ebaluagarriak diren alderdiak ikus daitezke berehala, saioko dinamikan duten eragina ikusirik. Hau gertatzen da esate baterako, jokuetan. Egiten hasi bezain laster soma daiteke duten motibatze gaitasuna, gaitasun hau sorpresa gatasunarekin batera poliki galtzen dijoalarik.

Irakaslea zuzenean behatzen badago, eta hau etengabe egin beharko du, jokua motibazioa galtzen hasten denean eten egin dezake. Horrexegatik, saio eta unitate didaktiko bakoitza programatzerakoan, irakasleak helburu eta eduki bera duten ariketa sorta zabal bat izan beharko du prest, hau da, edozein momentutan taldearen egoera hobe molda daitezkeen aldaketak ondo zehaztuak eduki beharko ditu.

Horrexegatik ere, iharduera bakoitzaren iraupena zehatz mehatz kalkulatzea oso zaila da. Behin ondo atera ziren ariketak orain gaizki atera daitezke, eta aldiz, bigarren mailako mamia zutela ziruditenek izugarritzko bidea eman dute pedagogikoki garrantzi handia duten loturak lortzeko. Eta dena ikasle talde jakin batengan lor dezaketen motibazio mailaren arabera dago. Ez ahanzi motibazioa Dramatizazioko edozein ariketa egiteko behar beharrezkoa dela.

Ikasleak eten gabe sorpresa eta berrikuntzak nahi izateak ere badu bere arriskua: Dramatizazioa ariketa ezberdin eta dibertigarritz jositako saio bihurtzea. Hasieran motibazioa

berrikuntzekin loturik dijoa, baina behar denean, ikasleak hausnarketa bat egin dezan tarte bat utzi behar zaio, ez ditzan sormena eta espontaneitatea automatikoki lotu.

Batzuetan egindakoa atzean utzi, edo bestela eten bat egin beharko da, eta aurretik ezagunak diren ariketak egin, egileengan sorpresarik sortarazi ez dezaten. Ikasleak horrela edozein prozesu artistikotan *inspirazio eta transpirazioaren* artean egon behar den oreka lortu beharko du, eta orduan irakasleak ikusitakoaren asimilazio maila frogatu ahal izango du.

Proposamen ekinkorra, hau da, ariketa bera askotan errepikatzea, sormena lantzeko oso trebaketa ona da. Taldean edo banaka egindako inprobisazio bat, hasierako egoera berean, eta talde berak egina, saio berean edo saio ezberdinetan jarraian eginez gero, aspergarria izan daiteke, egia esan, baina zalantzarik gabe pedagogikoki oso erakargarria ere bai: hausnarketa gehiago, estereotipoak edo "mass media" topikoen eraginak gainditzea, talde barruko elkarrizketak, adierazpenbide pertsonalagoak aztertzea (komunikazio mailan edo estetika mailan), poliki-poliki gauza konplexuagoak egiten hastea, e.a.

Ikaslegoaren adierazpen, komunikazio eta estetika gaitasunak ezin dira baloratu *kanpoko irizpideak* eredutzat hartuz. Ebaluazioaren oinarria ikasle bakoitzaren bilakaeran zuzenean behatzea da, eta hasieran ikasle bakoitzak berez dituen gaitasunetan arreta handia jarri beharko da, batez ere.

Ebaluazio metagarria egiterakoan, ihardueretan zehar ikasleak egindako bidea besterik ez da hartuko kontutan, eta ez bere emaitzak zeinen zoragarriak izan diren. Ikasgai honen helburuetan aipatutako gaitasunak izango dira uneoro ebaluatu beharko diren edukiak.

Irakasleak hainbat *ebaluaketa fitxa* beharko ditu ikasle bakoitzaren edukiak asimilatzekeo prozesua bilduz joateko. Hemen *eredu orokor* bat emango dugu, ebaluatu behar den sekuentzia tenporal edo didaktikora eta saio jakin baten ariketa, eduki eta helburuetara moldatu beharko litzatekeelarik:

Ikaslearen ebaluaketa fitxa

Ikaslea:

Ebaluatutako etapa:

1. Norberaren ezaugarriak:

- Adierazpena kontrolatzen al du?
 - Gorputz eta keinuena
 - Ahotsarena
 - Bokala
- Ahotsa, keinua eta mugimendua uztartuz adieraztea lortzen al du?
- Pertsonaien karakterizazioari aportazio fisikoak egiten al dizkio?
- Pertsonaiaren tokian egotea lortzen al du?
- Hainbat pertsonaia sortu eta karakterizatzen al ditu?
- Konfliktoren atalak ondo bereizten al ditu?
- Antzezpenean adierazpen baliabideak sormenaz txertatzen al ditu?
- Konfliktoren atalak zuzen planifikatzen al ditu?
- Inprobisazioa sormenaz txertatzen al du?
- Proposamen berrietara erraz moldatzen al da?
- Bere emaitzekin kritikoa izateko gai al da?
- Bere emaitzak artistikoki borobilduta egoteko interesa ba al dauka?

2. Taldearekiko jarrera:

- Ezarritako arauak errespetatzen al ditu?
- Gainontzekoek aportatzen dutena baloratu eta errespetatzen al du?
- Ariketetan kolaboratzen al du?
- Taldean egindako lanari kritika positiboak eta zentzuzkoak egiten al dizkio?

3. Beste datu batzuk:

- Egindako ariketa kopurua:
- Aurrerapenak:
- Gainditu gabeko zailtasunak:
- Besterik:

Erregistroen bidez informazioa sistematikoki biltzen badu, unitate didaktiko bakoitzaren funtzionamenduari buruzko atal hauek ebaluatzeko moduan egongo da:

Irakaslearen ebaluazio fitxa

Ebaluatutako etapa:

1. Helburuak:

- Ezarritako helburuak taldearen mailarako egokiak al ziren?
- Edukiak ezarritako helburuekin lorurik al zeuden?
- Proposatutako helburuak osotasunean lortu al dira?
- Ze zailtasun egon da lortzen saiatzerakoan?

2. Metodologia:

- Baliabide nahikoak eta motibagarriak erabili al dira?
- Ikasleak hasieran zekiena hartu al da kontutan?
- Irakaslearen parte hartzeen bidez nahi ziren helburuak lortu al dira?
- Aniztasunerako laguntzak eman ahal izan dira?
- Ihardueretan nahi zen erritmoa mantendun al da?
- Interesa eta zailtasunak mailakatu ahal izan dira?
- Bai bakarkako eta bai taldekako lana lantzeko denbota eta tokia utzi al da?

3. Ebaluaketa:

- Ebaluazioari toki nahikoa eman al zaio?
- Baliabide anitzak erabili al dira?

4. Ondorioak:

- Berregokitu beharko liratekeen unitate honetako alderdiak:
 - Ikasturte honetako hurrengo unitateetan
 - Unitate honetan hurrengo ikasturteetarako

10. Dramatizazioa eta antzezpenak.

Ikusleen aurrean antzeztu ahal izatea oso erakargarria da ikasleentzat, baina heziketan eragin bikoitza dauka. Printzipioz ikasgia berarekin lotuta antzezpen bat egitea ez da ez gomendagarria, ezta kontrakoa ere. Halere, hauen alderdi batzuk planteatzea komeni da, irakasleak hausnarketa egin dezan.

Alde onak:

- Ikasleak izugarri motibatzen dira, argi eta garbi, eta honek ikasgaiari ilusioz betetako erritmo bizi eman diezaioke.
- Prozedura komunikatibo artistikoen ikasketa globalak bultzatzen dira.
- Taldea biltzeko balio duten interesgune dira, eszenaratze batek behar dituen pauso guztiak ezagutzen dituztelarik.
- Disziplina arteko eta disziplina anitzeko proiektuak bermatzen ditu.
- Parte hartzen duen taldearengan erresponsabilitatea, elkar bizitza, erabakiak hartzea edo erabakien errespeto demokratikoa bezalako balioak bultzatzen dira. Maila pertsonalean, autoestima eta lagunartea hobetzen dira, ziurtasun eza eta lotsa gainditzen laguntzen delarik.
- Ikastetxeko kideei elkartzeko, komunikatzeko, errespetatzeko eta elkar bizitzeko aukera ematen zaie. Antzezpena baino lehenago, batera eta ondoren, ekintzak egin daitezke. Ikustera joaten diren ikasleak aisealdiko ekintza artistikoak egitera motibatzen dira. Ikuslego eskola izan daiteke.

Alde txarrak:

- Parte hartzaileak eskola ordutik kanpo orduak erabili beharrean daude.
- Parte hartzaileen berezko gaitasunak aprobetxatzera mugatu daiteke.
- Prozesu guztia baldintzatu daiteke, epe jakin batetarako emaitza batzuk lortu behar direlako.
- Taldean antsietate eta tentsioa sor daiteke.
- Komeni ez diren konpetibitate egoerak sor daitezke.
- Ikusleen babes nahia eta kritika ezak bultzatu dezake ikaslea bere gaitasun artistiko objetiboak benetan ez ezagutzen, eta errealitatetik urrunduta harrokerietan arrotzen.
- Ikastetxea antzezpen hauei ematen dien erabilpena eskolako egutegiko egun sasiludikoak betetzera mugatzen bada, ikusleak aurrez prestatu gabe eta ondoren

gelan ikusitakoa aztertu gabe, heziketarako duten balioa alperrik galdu daiteke. Dramatizazioko irakasleek hiruilabete bukaera aspergarriak alaitzeko besterik ez lukete balioko, eta Ikastetxeko Jai Egunean zer antolatu asmatzen ez bada, kinka larritik ateratzeko.

11. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskola antzerkia egiteko proposamena.

Aipatutako arriskuak kontrola badaitezke eta heziketarako duten balioa indartzen bada, eskolako antzezpenek oso toki garrantzitsua har dezakete ikastetxearen bizitzan eta Dramatizazioko ikasleen ikasketa prozesuan.

Bide honi eutsiz, kanpoko jendearen aurrean antzestu daiteke, ikuslegoak baldintza hauetako batzuk betetzen baditu:

- Antzezpena sormen handiz planteatu behar da, antzerki profesionalen materialak, denbora edo tokia erabiltzerakoan dituen ohizko ezaugarriak ez direla bakarrak eta onenak ohartuz. (Ez badago italiar erako iharduera areto dotorerik, zertarako saiatu soinketa gela deseroso batean eszenatoki kaskar bat moldatzen? Zergatik ez planteatu ikuslegoak toki ezberdinetan zehar mugitu behar duen ikuskizun bat? Eta zergatik ez kalean, enparantzan edo eskolako jolastokian egin?).
- Ikuslegoak Dramatizazioko taldez egon behar du osaturik, bertakoak edo beste ikastetxe batekoak. Ikasgai honen gakoetako asko ezagutzen badira, antzezten ez diren adierazpen bideak eskematikoki erabil daitezke, eta hauxe da *ikuskitun* bat ikustera dijoan kanpoko ikusleengan bultzatu beharko litzatekeena.
- Ikuskizuna *collage* moduan aurkezten da, eta bertan atal guztiak uztartzen dira *leit-movit* plastiko, musikala, tematiko baten bidez, ez buru ez hankarik gabeko istorio baten narratzaile baten bidez, edo zentzua baduen baten bidez.... Hau da, adierazpen materialak irizpide bateratzaile kontzeptual edo formal baten bidez uztartzen dira. (Gudari buruzko collage bat, gazteen arazoak, García Lorcaren poesia... Ikasturtean zehar egindako inprobisazio edo ariketa heterogeneoak aurkez daitezke, paradarako alde komunikatibo eta artistikoa hobe landuz, eta parte hartzaile guztiak berdin edo kolore berdinekin jantziak... Beste planeta bateko deabrutxo erren bat bere tresnen bidez lurreko biztanleen erreakzioak ikusten dituen... Eta beste aukera asko). Antzezpenaren helburuak eta ikasgaiaren planteamenduak naturalki loturik egotea da interesatzen dena, neurririk gabeko ahaleginak eskatu gabe eta eguneroko lana behar horretara makurtu gabe.

- Antzezpeneak, bat baino gehiago badira behintzat, ikas prozesuan txertatzen dira. Eszenatokia ez da ikusleei irakastera ateratzen, ikusleez baliaturik ikastera baizik. Antzezpen bakoitzak bere helburuak ditu eta autoebaluaketarako gune eta mekanismoak aurretik ezartzen ditu. Eta horrek ez du ikusleen erantzunaren menpe egon behar, erantzun honen ezaugarriak aztertzen diren arren. Horregatik, antzerki profesionalean *jende-aurreko entsaio orokorra* deitzen den entsaio motaren modura, antzezpen bakoitza prozesuaren atal bat da.
- Gainontzeko ikasleak ikusle moduan joateari ahal den etekin gehiena ateratzen zaio, horretarako irakaslego gehiena konprometitzuz. Antzezpen baten erritoetatik hasita (puntualitatea, isiltasuna, txaloak, esku-programaren eta publizitatearen behaketa...) ikusitakoari buruz gelan egiten den azterketa eta kritika ihardueretaraino (programatuak, ebaluagarriak). Horrela, antzerki eskola gelan jaio delarik, berriz ere bere gune naturalera itzultzen da.

UNITATE DIDAKTIKOA: "ZERTAN NABIL HEMEN?"

1. Sarrera.

1.1. Izenburuaren esanahia.

"Zertan nabil hemen?" galderak Dramatizazioan hasi berri den ikasle batek bere buruari egin diezazkiokeen galderak biltzen ditu bere baitan. Galderak izan ditzakeen xeetasunak ikasleak berak zituen itzarobideen arabera dago, ikasgaia aukeratu baino lehen ikasle edo kideengandik jasotako informazioaren arabera, edo bakoitzak nerabezaroaren prozesuan duen hanka sartzeko beldurraren arabera edo besteek zer esango ote dutenak duen eraginaren arabera.

Gure ikaslea hain lotsatia ez bada eta galdera bere buruari egin beharrean irakasleari egiten badio, erantzunak erabat tokiz kanpo utz dezake: Zertzan gabilta hemen?: **Jolasten.**

Jolasten. Adin guztietarako balio duen aintzinako jolas batetara olgetan. Jolas honetan ez dago zoriotasuna eta tristetasuna lotu beharrik, ezta dibertigarria garrantzirik gabekoarekin ere. Gure jokuak gizakia bere osotasunean hartzen du. Eta heziketan eragina izan nahi du, bai homo sapiens-arengan, bai homo faber-arengan eta baita homo ludens-arengan ere. Humanista garaikide batek, Johan Huizingak, ludikotasunaren funtsezko esanahia berreskuratzen laguntzen gaitu, behar bada, irakaslearen irudia berregiten: hezitzaile profesional serioa, eta ikasgela batean sartu eta ikasleekin jolasteko gai dena.

"Beraz, laburbilduz esan dezakegu jokua, bere alderdi formalean, askatasunez egindako ekintza bat dela "zerbaiten antzera egina" eta eguneroko bizimodutik kanpo sentitua. Halere, jokalaria erabat beregana dezake, interes materialik gon gabe, edo inolako etekinik jaso gabe. Toki jakin eta denbora jakin batean egiten da. Arauen arabera antolatzen da. Jokuak misterioz jositako egoerak bultzatzeko joera, edo eguneroko mundutik aldentzeko asmoz mozorrazteko joera dauka".

Johan HUIZINGA, *Homo Ludens*, Madrid, Alianza, 1972, 26 orr.

Eskerrak. Ez gara azareko joku haien modukoei buruz ari, ludikotasunetik hain urrutik zeudenak. Jokuak futbola, xakea edo atletismoa dira. Baina Huizingaren arabera, errito erlijiosoak, poesia, filosofia, artea eta antzerkia ere jolasak dira. Jolasa serioa eta sakona da, jolasa kulturaren jatorria bera baita muin-muinean. Hau esan nahi zuen, hain zuzen ere, hasierako gure erantzunak.

Noski, jakinminez betetako gure ikaslea ezin dezakegu Huizigarengana bidali. Guk geuk izan behar dugu argi zertan, norekin eta zertarako ari garen jolasten. Horrela hori transmititu ahal izango dugu ikas-irakaste prozesuaren urrats bakoitzean, apunteak eman behar izan gabe.

Horrexegatik adibide moduan, ikasgaiaren hasierako momentuetarako aukeratu dugu, hain zuzen ere, unitate didaktiko hau. Hasiera ondo zehaztuta egon behar delako diseinatu dugu, eta oinarrizkoena ez izanda ere (hasieraren hasiera baita), lehentasun handiko helburu hau dauka: *jokuaren arauak finkatzea*.

1.2. Ibilbide didaktikoak.

Orrialde hauetan oinarrizko ibilbide didaktiko bat aurkezten da, non sinpletasuna eta argitasuna bilatzen den, batez ere. Egiten den sekuentziazio didaktikoa eginda ere, Bigarren Hezkuntzan hain berria den ikasgai batean, lanaren oinarriak jartzeko denbora bat behar da hasieran, alderdi guztietarako (taldea, metodologia, edukia, iharduerak, ebaluaketa, e.a.). Hasteko oinarri izan nahi du irakaslegoarentzako, azken finean berak diseina dezan ikasgaia partaideen arabera (irakaslea barru) eta ikastexearen eta honen kokapenaren arabera.

Bestalde, ikastetxeetan ez dagoenez apenas Dramatizazioko espezialistarik, irakasleak berak dituen gaitasunez gain, oinarrizko teknikak eta teoriak ezagutu eta ikasi beharko ditu, ikasgaia emateko beharrezkoak baitira. Adibideak ematerakoan, egoera hau ere kontutan hartu dugu.

Ikastetxeetan antzerkia Hizkuntza eta Literaturako irakaslearekin lotzeko tradizioarik badago. Hau justifika daiteke testuak toki handia izaten duelako, literaturaren historian garrantzi handiko autoreen baten lana antzezerakoan. Halere, Dramatizazioak ikuspegi anitzak onartzen dituenek, lotura hau ez da hain nabarmena. Heziketa Plastikoa eta Bisualarekin, Gorputz Heziketa, Hizkuntza Klasikoekin, Atzerriko Hizkuntzarekin, edo besteekin ere hartuemanak baditu.

Irakaslearen jotorrizko ikasgaia edozein izanda ere, *antzerkilaritzaren pozoia*, autoformazioarekin, gelako eguneroko esperientziarekin, beste ikastetxeetako kideekin lanean aritzearekin edo heziketa eta antzerki erakundeek irakasle hoiengatik prestaketarako espreski diseinatutako ihardueretara joatearekin koordinatzea da gomendagarria.

1.3. Unitatearen kokapena eta iraupena.

Esan den moduan, ikasgaiaren hasierarako planteatutako unitate didaktikoa da: lehenengo unitate didaktikoa. Lau ordutako iraupena aurrikusi dugu, bai hirurogei minutu inguruko lau klaseetan izan, bai bi ordutako saioak izan. Bigarren aukera hau gomendagarriena denez, didaktikoki emankorragoa delako, iharduerak horrelaxe aurkeztu ditugu. Lau saiotan eginez gero, banaketa egiterakoan hartu beti kontutan saio berri bakoitza ezin dela aurreko saioarekin mekanikoki lotu, eta taldea fisiko eta psikologikoki berotzeko aurretik iharduerak egin beharko direla.

2. Helburuak.

2.1. Helburu didaktikoak.

- Gorputza beraren komunikazio eta adierazpen gaitasunak deskubritu eta baloratzea.
- Taldean aktiboki eta gustora integratzea.
- Taldean espontaneoki adieraztea, egozentrismo eta inhibizioak gaindituz.
- Norberarenganako konfidantza garatzea.
- Joku dramatikoaren gozatzeko eta ezagutzeko modua dela ikustea.
- Irudimena eta sortzailetasuna garatzea.
- Kontzentrazioa eta buru eta gorputzaren estimulo-erantzuna mekanismoak garatzea.
- Desinhibizioa lortzea zentzuen, gorputzaren, ahotsaren eta dramatizazioaren adierazpena lantzeko joku ezberdinetan parte hartuz.

3. Edukien aukeraketa.

Lehenengo unitate didaktiko honetako edukiak aukeratzean kontutan hartu da helburua ikaslea eta irakaslea ikasgaiarekin eta taldearekin harremanetan jartzea dela. Horregatik edukiak curriculumaren lehenengo bi blokeetan zehar hedatzen dira (*Pertsonaia* eta *Espazioa*), guztiek *hasierako hurbilpen* honetan ondorioak atera ahal ditzaten. Hurrengo unitate didaktikoetan berriz agertuko dira, modu errekkurrentean eta behar den sakontasunez landuz.

3.1. Eduki kontzeptualak:

- Gorputza: interpretearen adierazpen tresnaren gaitasuna.
- Kontzentrazioa: mekanismoak eta interferentziak.

- Behaketa: hautemate eta memoria.
- Gorputza mugimenduan: desinhibizioa, kontrola, sikomotrizitatea, toki aldaketak, mugimenduaren antolaketa.
- Keinuen hizkuntza: mimika, postura, keinua.
- Giza jokaeraren kodifikazioa: pertsonaia tipoa.
- Ahotsa: arnasketa, ahoskera, intonazioa, adierazpen gaitasuna.
- Toki aldaketak. Ibilbidea: modalitate eta erritmoak.
- Espazioa eta talde integrazioa.

3.2. Prozedurazko edukiak:

- Muskuloak lasaitzeko ariketak egitea (jauziak, lasterketak, itzulipurdiak, e.a.).
- Kontzentrazio jokuak, bikoteka edo taldeka eginak, errepikapenean, loturan edo ekintzen konklusioan oinarriturik.
- Soinu jokuak sortzea: estimulo batean oinarriturik sonorizazioak sortzea.
- Beroketa eta erlajazioak egitea norberaren egoera hobetzeko, bai fisikoa eta bai animikoa.
- Prozesu desinhibitzaileak egitea.
- Keinuen hizkuntzaren teknikak erabiltzea.
- Norberaren gorputzaren eta ahotsaren baliabideak erakustea.
- Toki aldaketak erritmo ezberdinetan egitea.
- Sentzazioak, zirrarak, hautemateak eta ideiak komunikatzea, taldean tokiaren konposaketa ezberdinak erabiliz.
- Gauza bat oinarritzat hartuta pertsonaiak sortzea.

3.3. Jarrerazko edukiak.

- Keinu, mugimendu eta ahotsean bapatekotasuna eta desinhibizioa.
- Norberaren gorputza onartu eta baloratu eta komunikatzeko dituen gaitasunak ezagutu.
- Besteak baloratu eta errespetatu, egoerak aztertuz, ikuspuntuak trukatzuz eta aurreiritzi, egozentrismo eta inhibizioak gaindituz.
- Arnasketa eta ahoskeraren kalitateak aho komunikazioa hobetzen duela konturatzea.

- Interpretazioa lan sistematiko, konplexu, sortzaile eta plazeremaile moduan baloratzea.
- Taldeko kideek bere nortasuna azaleratzerakoan interesa eta errespetoa izatea.

4. Ikas-irakasketa iharduerak. Hauen sekuentziazioa.

Ikasleekin landu behar ditugun edukiak bi orduko bi saiotan banatzen dira. Bigarren saioan lehenengo saioan lortutakoa zerbait sakontzen da, hau indartuz eta finkatuz. Ikasgaia hirurogei minututako saiotan egin behar bada, iharduerak egokitu edo motzago batzuekin ordezkatu beharko dira, diseinu orokorra errespetatuz.

Dramatizazioko saioak, ematen diren edukiak emanda ere, beti errespetatzea komeni den hiru ataletan antolatzen dira:

- *Beroketa.*
- *Garapena.*
- *Komentario/ebaluaketa.*

Beroketa atalean joku dramatikoak dira nagusi, arin aurkeztu eta erraz egiten direnak, parte hartzaileak fisikoki eta mentalki estimulatzeko. Joku hauen ardatza ariketa fisikoa, sorpresa eta umorea dira, bere alderdi guztietan. Bestalde, jokuak integrazioa eta parte hartze dinamikak naturalki eta erraz garatzen dituzte, ikasgai honen eguneroko lanean beharrezkoak direlarik. Hasiera honetan taldea espazialki *borobilean* kokatzeko joera eta *gorputzaren kontaktu espontaneo*a bultzatuko ditugu, halanola bakarkako ihardueretan *parte hartzeko joera*, gero taldekako iharduera konplexuagotan txertatuko direnak, talde osoaren errespetuz eta balorapen positiboz.

Horrelako jokuek motibatze eta desinhibitze gaitasuna galtzen dute, sorpresa emateko gaitasuna galtzen duten heinean. Uste genuen emaitzarik ez lortzea ere gerta liteke, espero ez genuen zerbait gertatu delako. Horregatik, iraupen jakin bat zehazki finkatzea ezinezkoa da. *Ordezko beste joku batzuk* prestatu beharko dira beti, berriz taldeko giroari eusteko. Bukaerako bibliografian joku bilduma erabilgarriak agertzen dira, egiteko mekanika ezagutzeaz gain, didaktikoki etekina nola atera ere esaten delarik. Horrelako egoera batean, ordezkatzeko oso erabilgarriak dira partaideen izena edo zaletasunak dituzten hainbat joku, edo bestela objektuak sormenez antolatzeko jokua; hauek guztiak Dramatizazioaren klasikoak dira bete betean. Eguneroko esperientziekin, hobe datozkionak aukeratuz joanen da irakaslea, beste batzuk moldatuz, edo, zergatik ez, berak bereak sortuz.

Hasierako bi saioen artean dagoen harremana hobe ulertu dadin, saio bakoitzeko antzeko egoerei dagozkien iharduerak bikoteka aurkeztu nahi izan ditugu. Horrela lehenengo

saioaren edukiek elkarrekin duten harremana ikus daiteke, eta nola bigarren saioan eduki hauek espiralean lantzen diren.

Saio bakoitzeko ihardueren gidoia hauxe da:

Unitatearen ihardueren gidoia

Lehenengo saioa

- Beroketa:

- *Eta orain etxazain bat izanen gara. (7').*

- Garapena:

- *Txiklea. (10').*
 - *Entzuteko marrazkiak. (15').*
 - *Museoari bisita. (15').*
 - *Argazkia asma ezazu. (45').*

- Komentario/ebaluaketa:

- *Txanda borobilean.*

Bigarren saioa

- Beroketa:

- *Panderoak mugimendua markatzen du. (10').*

- Garapena:

- *Nire ahotsa doakizu. (20').*
 - *Argazkia gaurkotu eta bizia emaiozu. (75').*

- Komentario / ebaluaketa:

- *Txandaka borobilean.*

Lehenengo saioa. Beroketa.

“Eta orain...etxazain bat izanen gara”

(Istorioa mugimenduan)

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa, irakaslea barru.

- **Materialak:** Baterez.

- **Ustezko iraupena:** 10 bat minutu.

- **Edukiak:**

- Kontzeptuzkoak:

 - Gorputz adierazpena, desinhibizioa.

- Prozedurazkoak:

 - Berotzeko eta desinhibitzeko jokuak.

- Jarrerazkoak:

 - Keinu eta mugimenduen bapatekotasuna.

 - Besteenganako errespetoa.

- **Garapena:**

Irakasleak ikasleei azaldu behar die istorio bat kontatu behar duela eta bitartean beraiek kontaktaren protagonista izan behar dutela, narraketak eskatzen dituen keinu eta mugimenduak egin behar dituztelarik. Ikasleei gelan zehar sakabana daitezen eskatu behar zaie, eta bere istorioa kontatzen hasten da, mugimendu eta keinuak egiteko behar den denbora eta etenak utziz:

“Etxazain ingeles bat izanen gara, beraz, tente-tente ibil gaitezen, burua gora, poliki. Taberna-altzarira joko dugu, ireki, roskadun botiletako bat hartu, hau ere ireki eta altzarian dagoen kopa bat beteko dugu. Bandeja baten gainean jarriko dugu kopa, bandeja eskuineko eskuz hartu eta ezkererantz ibiltzen hasiko gara. Pasilu zabal batetik goaz, ate baten aurrera iritsi gara, ireki egingo dugu eta, hau zeharkatu ondoren, berriz ere itsi egingo dugu. Hiru maila igo ondoren beste pasilu batetara iritsiko gara. Egardia eta beroa sentitzen hasiko gara. Gelditu, eta gure inguruari begiratuko diogu. Ez da inor ikusten. Kopa kontuz hartu, ezpainetara hurbildu eta zurrutada bat hartuko dugu. Zeinen ona dagoen! Beraz, geratzen dena edango dugu. Bapatean, urdaileko izugarritzko miña sentitzen hasten gara. Bandeja erortzen utzi eta urdailari bi besoekin eutsiko diogu. Oinazea gero eta handiagoa da eta lurrera eroriko gara kexuka gure soina bihurtuz. Oinazea areagotzen dijoa eta konortea

galtzen dugu. Gure onera iritsi bezain laster, ohiu bat entzuten dugu. Mamu bat! Mamu bat! Nekez altxatzen gara ihes egiteko, eta mamua gu geu garela konturatuko gara. Pausoak entzuten dira, guregana datoz, ihes egin beharra dago. Baldar samar ihesari ekiten diogu, ekin eta ekin. Gure atzetik datoz, etxetik irten eta baso aldera egiten dugu korrika. Lehenengo sasiatarira iristean lau hankatan jarri eta ondoko kobazulo batetarantz goaz poliki-poliki. Barruan gaudelarik altxa eta ai! Eskuineko oinean arantza bat sartu zaigu. Halere, ibiltzen jarraitu behar dugu, kobazuloaren ahoan ahotsak entzuten dira, beraz, hanka bakarrakin salto eginez gure bideari eusten diogu. Kobazuloa estutuz dijoa eta sapaia ere gero eta beherago dago. Berriz ere lau hankatan jarri beharra dago, eta azkenik, lurretik arrastaka. Nekatuta gaude, gero eta polikiago goaz, baina dagoeneko argi bat ikus daiteke. Azken ahalegina eginez kobazulotik ateratzen gara. Neka-neka belarrean etzan eta poliki-poliki lotan ari gara gelditzen. (Irakaslea une batez isiltzen da). Esnatzerakoan, bandeja eta kopa zatiak lurrean ikusten ditugu. Ametsgaizto bat zen. Errealitatera itzuli beharra dago, beraz, zutitu, kopa zatiak bandejan jarri eta, duintasunez, sukaldarantz joko dugu”.

• **Oharrak:**

Ariketa honek desinhibitzea lortzen du, ikasleak, batez ere korrika egin behar denean, jokuan espontaneoki sartzen direlako. Taldea oso lotsatia bada, etxazainaren atala laburtu daiteke eta mamuarena luzatu, inolako momentutan egoerak irakasleari eskuetatik ihes egin ez diezaion.

Lehenengo saioa. Garapena (1).

Txiklea

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa.
- **Materialak:** Baterez.
- **Gutxi gora beherako iraupena:** 10 minutu.

- **Edukiak:**

- Kontzeptuzkoak:

Postura ireki eta itxiak.

- Prozedurazkoak:

Taldearen beroketa sikiko eta fisikoa.

- Jarrerazkoak:

Desinhibizio eta gorputz adierazpenarekiko gustoa.

- **Garapena:**

Partaideak gelan zehar sakabanatzen dira. Lurrean eserita, norberak bere gorputza biltzen du, ahal den toki gutxiena okupatuz, baina tentsiorik gabe. (Postura itxiena). Irakaslea istoria bat kontatzen hasten da:

“Guetariko bakoitza txikle bat da. Ze zaporekoa izan nahi dut? Nere paperean bilduta nago, eroso, lasai. Baina badator zerbait ni aztoratzera. Paperetik ateratzen naute eta ni maskatzen hasten dira...Tira egiten didate, globo handi handi bat egin naute, (postura zabalena) hain handia... lehertu egiten dela. Orain bi aldeetatik tira egiten didate. Urduritasunez maskatzen naute, antsietate handiz. Oraintxe beste globo bat, eta beste leherketa bat... Nire jabeak ez dirudi oso eskrupuloso eta aurreko egunean bere mahaiaren oholaren azpian utzi zuen beste txikle batekin elkartzan nau... Tira eta tira egiten dit, maskatu, globoa, leherketa...”

Bakoitzaren txikletik talde txikietara pasa daiteke eta gero talde osora, txikle erraldoi bakar bat izango balitz bezala, kontsignak jarraituz bolumena eta erritmo aldaketak dituelarik.

- **Oharrak:**

Taldea hasi berria bada, ariketa begiak itxita egin daiteke. Erreakzioen arabera, irakasleak talde integrazioa bultzatzea dezake gorputzaren kontaktu espontaneoaren bidez, lehenengo eskuak, gero bizkarrak, e.a. Kontsignen bidez istorio ezberdinak asma daitezke, umorezkoak, kafkiarrak, edo surrealistikak.

Erritmoa kontatzen den istorioaren bidez marka daiteke, edo pandero baten bidez. Erritmo ezberdinak dituen grabaketa baten bidez ere marka liteke, kontraste handiekin (gregoriarra, rock gordina, bakalaoa, balsa...). Horrela ihardueran bapateko koreografiak sor daitezke, mutil askok mugimendu lasaiekin dantzatzeko dituzten inhibizioak gaindituz.

Lehenengo saioa. Garapena (2).

Entzuteko marrazkiak

(Grafofoniak)

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa, binaka edo hirunaka.
- **Materialak:** Entzuteko marrazkien orriak.
- **Gutxi gora beherako iraupena:** 15 eta 20 minutu bitartean.

- **Edukiak:**

- Kontzeptuzkoak:

- Ahotsaren adierazpen gaitasuna.

- Bolumena eta tonoa.

- Prozedurazkoak:

- Entzuteko marrazki batetan oinarrituta, sonorizazio jokuak.

- Ahotsak duen sortzailetasun gaitasuna aztertu.

- Jarrerazkoak:

- Desinhibizioa eta ahotsaren espontaneitatea.

- Norberaren eta besteen adierazpen gaitasunak onartu eta baloratu.




- **Garapena:**

Irakasleak marrazkidun orri batzuk banatzen ditu eta bakoitzari hoietako zeintzuekin egin behar duen lan adieraziko dio. Hasierako fasean ikasleei marrazki baten irakurketa askea eta sortzailea egin dezaten eskatuko zaie. Minutu batzuk uzten zaizkie taldeka presta dezaten, eta gero bere "kideei" irakurri egingo diete.

Bigarren atalean, beste entzuteko marrazki ezberdin bat ematen zaie eta arau batzuk ezartzen dira, oso sinpleak, baina errespetatu beharrekoak: hizkien tamainua bolumenari dagokio; marrazkiarekiko posizioa tonolari (goian, agudoa; behean, grabea). Lehenengo fasean prozesua errepikatzen da.

- **Oharrak:**

Ikaslearentzako desinhibigarriagoa izan daiteke iharduera hitzak dituen marrazkiekin hastea, ikaslearentzako erreferentzi baitira. Bigarren atalerako marrazkiak besterik ez dituztenak utz daitezke. Aurrerago ariketa hau ikasleek beraiek egindako entzuteko marrazkien bidez egin daiteke.



Lehenengo saioa. Garapena (3).

“Museoari bisita”

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa.
- **Materialak:** Kaseta eta musika.
- **Iraupena:** 20 bat minutu.
- **Edukiak:**
 - Kontzeptuzkoak:
 - Gorputzaren adierazpena, kontrola et arintasuna.
 - Kontzentrazioa.
 - Memoria auditiboa.
 - Joku sinbolikoa eta arauak.
 - Desinhibizioa.
 - Prozedurazkoak:
 - Imajinazioaren garapena oinarritzat hartuta, gorputzak dituen adierazpen gaitasunak bilatzea.
 - Norberaren gorputzaren adierazpena besteen gorputzarekiko harremanean.
 - Kontsigna bat betetzeko erreflejoak.
 - Gorputzaren mugimendua musika entzunez koordinatzea.
 - Jarrerazkoak:
 - Arauak onartzea.
 - Jokuaren beharra.
 - Jokuaz gozatzea.
 - Taldean integratzea.
- **Garapena:**

Jokoaren hasieran taldea erdibitu egingo da. Ondoren, eskultura museo oso berezi bat bisitatuko dugula esan behar zaie, hutsik baitago eta sartu ahal izateko eskulturak guk geuk ipini beharko ditugu.

Talde batek eskultura bakarrak edo eskultura taldetxoak sortu beharko ditu museo huts horretan. Eskulturak ze taldek egin behar dituen erabaki ondoren, lanean jarri eta estatuak

kokatuko dira. Estatuak amaitu ondoren, irakasleak gainontzeko ikasleei museoa bisita dezaten gonbitea luzatuko die. Bisitariak, hain museo berezia denez, eskulturen postura aldatzeko baimena dute, ez baitaie dutena atsegin (Giroa nahasten bada, edo estatu moduan dauden kideengan errespeto falta somatzen bada, estatuen posturak aldatzeko arauak jar litezke). Bisitariak oso adi egon beharko dute, edozein musika entzuterakoan estatuek bizia hartu eta hasierako postura aldatu dien bisitaria harrapatzera joango dira eta. Harrapatuz gero, bisitari eta estatua lanak elkar trukatu dituzte. Bisitariak erasoaldiari aurre egin ahal izateko modu bakarra izango da hankak gorantz jarrita edo eskuineko eskua ezkerreko belarran jarritik eta ezkerreko eskua eskuineko aldakan. Ondoren estatua eta bisitari zereginak aldatu egingo dira.

Lehenengo saioa. Garapena (4).

“Argazkia asma ezazu”

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa taldetxotan banaturik.
- **Materialak:** Argazkiak, laminak, egunkariak.
- **Iraupena:** 45 bat minutu.
- **Edukiak:**

- Kontzeptuzkoak:

Behaketa, hautematea eta memoria bisuala.

Imitazio jokua.

Iritzi kritiko eta estetikoaren garapena.

- Prozedurazkoak:

Aurretik behatutako irudiak imitatzea, postura errespetatuz.

Talde antolaketa.

Norberaren gorputz adierazpena talde osoaren adierazpenari egokitzea.

- Jarrerazkoak:

Taldean integratzea.

Talde lanarekiko interesa.

Gainontzekoen iritziak onartzea.

- **Garapena:**

Irakasleak argazki, lamina, koadro e.a. batzuk aukeratuko ditu, ikasturteko ikasgainen batekin edo zeharkako gairen batekin loturik egon daitezkeenak. Irakasleak argazkiak buruhauskarri biurtu dituela esango du, eta ikasle bakoitzari bat emango dio, beste kideen artean buruhauskarri bakoitzaren gainontzeko atalak bilatu behar dituztela esanez. Horrela ikasleak taldetan antolaturik egongo dira. (Buruhauskarriak egiterakoan eta atalak banatzerakoan garrantzitsua da dagoen ikasle kopurua kontutan hartzea).

Behin taldeka eginda, irakasleak ikasleei talde bakoitzak argazkia ahal duen leialen bersortu behar dutela esango die, argazkiko pertsonen postura, gorputzaren kokapena eta keinuaren garrantzia azpimarratuz. Talde bakoitzak izkutuan gorde beharko du ze argazki bersortu behar duen.

Prestatzeko eta entsaiatzeko denbora utzi ondoren, talde bakoitzak bere lana besteei aurkeztuko die, bersortutako argazkia zein den asma dezaten.

Talde guztiek aurkeztu ondoren, lan bakoitzaren alde onak eta txarrak baloratzeko solasaldi bati ekingo zaio.

- **Oharrak:**

Iharduera honek beste batzuei bidea ireki diezaiekete: irudian agertzen dena antzeztu, ahotsa jarri, mugimendua, argudioa, argazkiaren garai historikoa antzeztu, proposatutako gaia oinarritzat hartuta istorio berriak asmatu.

Argazkiekin zuzenean ere lan egin daiteke, buruhauskarri bakoitza bildu behar izan gabe.

Lehenengo saioa.

Komentario/Ebaluaketa.

Txandaka borobilean

Saio edo elkarrekin erlazionatutako iharduera multzo baten bukaeran, irakasle eta ikasleek txandaka borobilean sistemaren bidez egindako guztia aztertu eta baloratuko da behar den denboraz.

Ikasleak, lurrean borobilean eserita, irakasleak egingo dituen galderei erantzunez joanen dira banaka banaka, labur eta arrazoituz. Ez da komentariarik onartuko txanda osoa amaitu arte, ezta irakaslearenik ere.

Lehenengo galderak, izotza hausteko, saioaren alde onei buruz izango dira (ondo sentitu naiz halakotan, halako gustatu zait batez ere, halakotan inplikatu naiz gehienbat...). Hurrengo txandak alde txarrak azaltzeko bideratuko dira (“halakotan..... sentitu naiz zeren eta....., halakotan ez naiz kontzentratu..., halako oso zaila egin zait...”).

Irakasleak, galdera beretsuen txanda amaitu ondoren, erantzun berdinak eta ezberdinak sintetizatzen has daiteke, eta beharbada ikasleren bati bere erantzunarekin zer esan nahi zuen galde diezaioke. Uneren batetan, beharrezkoa ikusten bada edo ikasleek eskatzen badute, irakasleak azal dezake ze helburu zuen zail samar, harrigarria edo pulamentu gabekoa ematen zuen ariketaren batek, iharduek duten hezkuntza mailako lotura ikusteko (*Etxazainaren ariketarekin zera nahi izan da...*).

Erantzunek ikasleak beraien burua ebaluatzeko balioko dute, saioan zehar irakasleak behatutakoa berretsiz. Hau guztia ebaluaketa diagnostikoaren eta ondorengoko planifikazioaren zerbitzura dago.

Autoebaluaketa hauek noizbehinka osa litezke ikasleari idatziz erantzun beharreko galdetegi bat emanez, erantzun pertsanalgo eta landuagoak eman ditzaten.

Ikasleek unean atsegingarri iruditu zaizkien iharduerak positiboki baloratzeko joera izan ohi dute (sorpresa handiko ariketak) edo norberaren interesekin gehiago bat datozenak (eszenak inprobisatuz pertsonaiak interpretatzea, esate baterako). Hain ondo moldatzen ez diren iharduerak gaitzetsi egiten dituzte, ahalegin fisiko eta mental gehiago eskatzen dutenak, esate baterako, edo hasierako sorpresa gaitasuna galdu duten haiek. Irakasleak bi motatakoak konbinatu beharko ditu. Arte prozesuek denbora eta metodoa behar dutela jakinarazi beharko du, eta konplexuak direla. Harrera txarrena izan duten iharduerak berformulatu egin beharko ditu, berdinak izanik ezberdinak direla eman dezan. Azken finean ikasleak konbentzitu egin beharko ditu bere ikas-prozesurako eta garapenerako jada egiten dakitena interes gutxiena duena dela, hain zuzen ere.

Bigarren saioa. Beroketa.

“Panderoak markatzen du mugimendua”

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa.
- **Materialak:** Pandero bat eta trabarik gabeko toki bat.
- **Iraupena:** 10 bat minutu.
- **Edukiak:**
 - Kontzeptuzkoak:
 - Beroketa, desinhibizioa, kontzentrazioa.
 - Hautematea eta bereizketa auditiboa.
 - Gorputzaren kontrola.
 - Prozedurazkoak:
 - Gorputzaren mugimendua erritmo batetara, musika intentsitate batetara eta toki batetara egokitzea.
 - Parte hartzaileen hurbilpen fisikoa modu ludikoan.
 - Jarrerazkoak:
 - Hautemate auditiboaren balorazioa.
 - Gorputzaren adierazpen gaitasunetaz jabetzea.

- **Garapena:**

Partaideak borobilean jarri eta irakasleak pandero batekin markatutako erritmoan ibiliko dira. Panderoa isiltzen bada, parte hartzaileak gelditu egingo dira eta panderoaren erritmoa berriz entzuten hasten denean zebiltzan kontrako norabidean hasiko dira mugitzen. Bigarren fase batean, panderoaren soinuaren intentsitatearen arabera hasiko dira mugitzen, intentsitatea bortitzago denean borobila ahal den toki gehien harrapatzen zabalduz, eta lehunagoa denean borobila bilduz ahal den toki gutxiena okupatuz. Arretari eusteko eta kontzentrazioa eta pertzeptzio auditiboa hobetzeko, irakasleak erritmoak eta intentsitateak aldez aurretik abisatu gabe aldatzera jolastuko du.

- **Oharrak:**

Panderoa beharrean beste edozein perkusio tresna edo aurretik grabatutako musika bat erabili daiteke. Ariketa gehiago konplika daiteke kontsigna gehiago emanaz edo erritmo eta intentsitate ezberdin gehiago lotuz.

Bigarren saioa. Garapena (1)

“Nire ahotsa doakizu”

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa.
- **Materiala:** Baterez.
- **Ustezko iraupena:** 20 bat minutu.
- **Edukiak:**

- Kontzeptuzkoak:

Kontzentrazioa.

Arnasa hartu eta botatzea.

Soinuaren bolumena eta iraupena.

- Prozedurazkoak:

Arnasa hartu eta botatzeko ariketak egitea.

Keinu bati lotutako soinuak eten gabe egitea.

Kontzentrazio ariketak egitea ahotsa-keinua-igorle-hartzaile loturan oinarrituz.

- Jarrerazkoak:

Komunikatzeko gaitasunak baloratzea.

Norberaren eta besteen arreta eta kontzentrazioari errespetoa izatea.

- **Garapena:**

Borobilean eserita, denak batera arnasketa lantzen hasiko dira, arnasa poliki poliki hartu eta botatzen eta artikulatutako soinurik atera gabe. Ondoren, arnas geldo horri MA silaba gehituko zaio, eta honekin soinuaren bolumena eta iraupena landuko da. Behin soinu argi bat lortuz gero, hurrengo pausoa azaltzen zaie ikasleei: ikasle bakoitzak bere eskuinekoari bere soinua pasatu behar dio arau hauek jarraituz: ikasle guztiek ezkerreko kidearengan biratzen dute burua; ariketako lehenengo ikasleak arnasa sakona hartzen du eta, soinua egiten hasten denean, bira eman, bere eskuinekoari begiratzen dio eta soinuari lehen landutako iraupena eta bolumena ematen dio. Soinua jasotzen duen kidea arnasa hartzen hasiko da pasatu dionaren begiradarekin topo egiten duenean, inolaz ere lehenengo; eta bere soinua egiten hasterakoan hurrengo ikaslearengan biratzen da, eta honek urrats berak jarraituko ditu, eta horrela borobila bukatu arte. Ondo azpimarratu behar da ondokoaren begirada jaso arte ezin dela arnasa hartu (berehala azkar botatzea komeni delarik). Bestalde gure soinua ezin da eten hurrengoak guri

begiratzeari uzten dionean. Gure soinuak iraupen jakin bat izango du, beraz, ez da inoiz isiltasunik egongo, beti soinu bat bestearen gainean egongo baita.

- **Oharrak:**

Ariketa eman lezakeena baino zailagoa da, ikasle askorentzat keinua eta soinua elkartzea zaila baita, eta batez ere ondoko lagunaren begirada eta soinuarekin topo egiten duenean parrez lehertzeko tentazioari eustea. Horrexegatik txanda bat behar diren eten eta errepikapenekin egitea komeni da, bigarrena nahiko genukeen kontzentrazio eta arintasunaz atera dadin saiatu baino lehen.

Ariketa honek aldaera konplexuagorik badu: Lehenengo parte hartzaileak bere lehenengo soinua osatu duenean (eta MAren txandak jarraitzen duelarik), arnasa hartu eta beste soinu ezberdin bat egiten du (MA, ME, MI, MO, MU), bere eskuineko kideak berriz jasoz, eta beti hasierako arau berak jarraituz.

Bigarren saioa. Garapena (2)

“Argazki bati bizia eman eta gaurkotu ezazu”

- **Parte hartzaileak:** Talde osoa taldetxotan banatuta.

- **Materiala:** Egunkari papera et margolari zinta.

- **Iraupena:** 75 bat minutu.

- **Edukiak:**

- Kontzeptuzkoak:

- Pertsonaia tipoa.

- Gorputz adierazpena.

- Janzkera.

- Iharduera dramatikoak.

- Prozedurazkoak:

- Gaur egungo pertsonaia tipiko bat aukeratu eta karakterizatzea, mugimenduari, keinuari, janzkerari e.a. dagokionez.

- Jantzia diseinatu eta prestatzeko egunkari papera erabiltzea.

- Argazkiko pertsonaiak gaurkotuz egoera dramatrikoak sortzea.

- Jarrerazkoak:

- Besteen lanarekiko arreta eta errespetoa.

- Pertsonaia sortzeko prozesuan exigentzia.

- Pertsonaia sortu eta antzeztean gozatzea.

- **Garapena:**

Argazkia osa ezazu iharduerarekin egindako lana hartuko da oinarritzat.

Bigarren zati honetan aurreko argazkian agertzen ziren pertsonaiak gaurkotzea da kontua, egungo gizarteko pertsonaia tipikoak bilatuz.

Behin pertsonaiak aurkeztuta, argazkiak iradokitzen digunari bizia emango diogu, lehenik pertsonaia berria karakterizatuz, gaurkotua, mugimenduari, keinuari, ahotsari, hitzari eta jazkerari dagokionez. Jantziak egiteko egunkari paperak eta margolari zinta besterik ez dugu erabiliko.

Ondoren, gaurkotutako argazkian dauden pertsonaia guztien artean istorio laburrak eta egoera dramatikoak sortuko dira.

- **Oharrak:**

Aurreko ariketan egindako taldeekin egin daiteke lan edo bestela aldatu ere egin daitezke.

Iharduera zabaldu daiteke espazioa, eszenografia, iluminazioa, girotzeko musika e.a. sortuz.

Bigarren saioa.

Komentario/Ebaluaketa.

Txandaka borobilean

Saio edo elkarrekin erlazionatutako iharduera multzo baten bukaeran, irakasle eta ikasleek txandaka borobilean sistemaren bidez egindako guztia aztertu eta baloratuko da behar den denboraz.

Ikasleak, lurrean borobilean eserita, irakasleak egingo dituen galderari erantzunez joanen da banaka banaka, labur eta arrazoituz. Ez da komentariarik onartuko txanda osoa amaitu arte, ezta irakaslearena ere.

Lehenengo galderak, izotza hausteko, saioaren alde onei buruz izango dira (ondo sentitu naiz halakotan, halako gustatu zait batez ere, halakotan inplikatu naiz gehienbat...). Hurrengo txandak alde txarrak azaltzeko bideratuko dira (halakotan.... sentitu naiz zeren eta....., halakotan ez naiz kontzentratu..., halako oso zaila egin zait...).

Irakasleak, galdera beretsuen txanda amaitu ondoren, erantzun berdinak eta ezberdinak sintetizatzen has daiteke, eta beharbada ikasleren bati bere erantzunarekin zer esan nahi zuen galde diezaioke. Uneren batetan, beharrezkoa ikusten bada edo ikasleek eskatzen badute, irakasleak azal dezake ze helburu zuen zail samar, harrigarria edo pulamentu gabekoa ematen zuen ariketaren batek, iharduek duten hezkuntza mailako lotura ikusteko (*MA soinua elkarri pasatzen genionean hauxe landu nahi genuen...*).

Erantzunek ikasleak beraien burua ebaluatzeko balioko dute, saioan zehar irakasleak behatutakoa berretsiz. Hau guztia ebaluaketa diagnostikoaren eta ondorengoko planifikazioaren zerbitzura dago.

Autoebaluaketa hauek noizbehinka osa litezke ikasleari idatziz erantzun beharreko galdetegi bat emanez, erantzun pertsanalgo eta landuagoak eman ditzaten.

Ikasleek unean atsegingarri iruditu zaizkien iharduerak positiboki baloratzeko joera izan ohi dute (sorpresa handiko ariketak) edo norberaren intereseekin gehiago bat datozenak (eszenak inprobisatuz pertsonaiak interpretatzea, esate baterako). Hain ondo moldatzen ez diren iharduerak gaitzetsi egiten dituzte, ahalegin fisiko eta mental gehiago eskatzen dutenak, edo hasierako sorpresa gaitasuna galdu duten haiek. Irakasleak bi motatakoak konbinatu beharko ditu. Arte prozesuek denbora eta metodoa behar dutela jakinarazi beharko du, eta konplexuak direla. Harrera txarrena izan duten iharduerak berformulatu egin beharko ditu, berdinak izanik ezberdinak direla eman dezan. Azken finean ikasleak konbentzitu egin beharko ditu bere ikas prozesurako eta garapenerako jada egiten dakitena interes gutxiena duena dela, hain zuzen ere.

5. Metodologia.

Lehenengo unitate didaktiko honen ihardueren bidez Dramatizazioan hasia berez bada ikasgaiaren ezaugarrietan murgiltzea: *aktiboa, globalizatzailea, integratzailea eta estetikoa*.

Ezaugarri hauek dituen ikasgai batek noski, metodologia *aktiboa eta parte hartzailea* behar du, hemen proposatzen den moduan. Hasierako talde handiko ariketek poliki poliki *talde txikiko* lanari ematen diote bidea, eta azkenean *bakarkako* lana egiteko uneetara ere badago hurbilpenik. Aurreragoko unitateetan ibilbidea alderantzizko izan daiteke.

Hasierako une hauetan irakaslearen helburua taldea eta ikasturtean zehar egingo den lan estiloa sortzea da, eta detaile handi nahiz txikiek garrantzi berezia izanen dute probetxuzkoa izango den lanaren oinarria hasieratik ezartzeko:

- Hasierako giro hotza hausteko irakasleak bere burua inplikatu beharko du. Ariketa hauek ez dira hain beldurgarriak izaten hasi berri batzuentzat *irakasleak berak ere egiten baditu*.
- Hasieran batez ere, irakasleak oso modu erakargarrian planteatu beharko ditu iharduerak. Irakasleak kontsignen bidez istorio bat kontatzen duen ihardueretan (*Etxazaina, Txikle*a, e.a.), narraketak oso adierazkorra eta iradokizunez beteta izan behar du, bolumena, erritmoa, intonazioa edo ironiari dagokionez, talde osoaren inplikazioa berehala lortuz. Sorpresa eta iradokizunen bila joango da beti. (“Bart ametsgaizto beldurgarri bat izan dut: txikle bihurtu naiz eta...”).
- Expreski adierazi gabe markatuko ditu arauak, egindakoaren balorazio kritikoetan erabiliko duen *hizkuntza eta jarreraren* bidez. Bere eitea, errespetua eta jokabide positiboa hasiera batetan ikaslegoarentzako erreferentzi izango dira besteak nola baloratu jakiteko. Aurre egin beharko die komentarioei, zeharka edo zuzenean, mesprezuzkoak, buru gabekoak, haundi-maundiak edo parre-eragingarriak badira.
- Hasierako saioak erabakikorak dira hurrengo egunetarako iharduerei aurre egiteko jarri behar den *erritmo bizia eta hazkorra* ezartzerakoan. Ikasleei proposatzen zaionaren aurrean beharrezkoak diren *kontzentrazio* arauak ezartzeko ere bai. Poliki poliki parra desagertuz joan behako da taldearengan konfidantza hartzen den heinean eta hasierako nerbioak kontrolatzea lortzen den heinean.

Lan egiteko giro egokia sortzen den bitartean, motibazio gehiena ematen duena indartuko da. Dramatizazioan, ez du ia ezerk balio gogo eza edo beharra dela medio egiten bada. Horrexegatik, erabili behar den metodologiak *malgua eta taldearen beharretara irekia* izan behar du. Hau dela eta, esate baterako, da hain zaila ariketa bakoitzaren iraupena zehaztea; prozesuen konplexutasunaren gutxi gora beherako balorazio bat egitea besterik ez da posible.

6. Aniztasunerako neurriak.

Unitate didaktikoan taldekakoa edo kolektiboa indartzen den arren, ez da ahantzi behar bakoitzaren gaitasunak garatzea dela helburu didaktikoa.

Hasiera honetan, esan den moduan, *talde motibatzaile, langile eta errespetatzailea* sortzea da gure helburua, eta horrela, hurrengo saioetan ikasle bakoitzaren alor sortzaile eta pertsonalenak garatzeko aukera egonen da.

Haatik, Dramatizazioko irakasleak, ariketa bakoitzean beharbada beharko diren ordezkapen eta aldaketak alde aurretik ikusi behar dituen bezala, indibiduala kontutan hartuz ere estrategiak planifikatu beharko ditu. Kontutan izan zenbat egoera ezberdin sor daitezkeen faktore indibidualak sortutako ustekabeengatik; eta honek aurkikuntza ederretara eraman gaitzake, baina baita egoera korapilatsuetara ere.

Estrategia hauek beste ikasgaietan erabili daitezkeen berberak dira, nahiz eta Dramatizazioan, jarrerazko edukiek duten garrantziagatik, irakaslearen erreflejoak hasiera hasieratik jarri beharko diren lanean. Zer egin Dramatizazioan oso lotsati denarekin, baldarrarekin, telebistazalarekin, izorratzailearekin, hiperaktiboarekin, burugabearekin, perfekziozalearekin edo gonbidatutako izarrarekin?

Zentzuz jokatzeko izango da, ezer baino gehiago, lehenengo neurri pedagogikoa. Irakaslearen jarrera ona, hitz goxoez eta estimulagarriek, komentario positiboek eta naturaltasunak oso ondo funtzionatzen dute hasierako momentuetan.

Ariketa hasi baino lehen lotsari edo protagonismo nahiei aurre egiten lagunduko gaituzten rol edo aldaerak agian erabili beharko ditugula ere pentsatu beharko da. Adibidez:

- Begi itxiek edo paretari begira egiten diren ariketak.
- Pandoarekin erritmoa markatzeaz arduratzen den ikaslea.
- Irakaslearen bikote den ikaslea.
- Kanpo behatzaile edo idazkarien rola, ondorio zehatzak atera beharko dituztenak.
- Estatu mendekua ahokorapilo edo kontsigna baten bidez bakarrik geldiarazi daiteke. (Irtenbide hau *Museoari Bisita* ihardueraren egokitzapen kurrikularraren adibide bat da, zailtasunak dituen ikasleren batentzat, iraunkorrak nahiz behin-behinekoak).
- Ariketa baten hasieran azpitaldeak askatasunez egin daitezke, kidetasunen arabera edo aleatorioki. Baina irakasleak berak ere erabaki dezake edo kontsignak ematen dituenak alde aurretik pentsatutako *kasualitatearen* bidez
- Beste strategi posible asko.

Azken finean, ikasgai berri bati aurre egiteko lan giroa sortzerakoan lehenengo iharduerek erabateko garrantzia dute: talde motibatzaile eta errespetatzaile bat osatzea, zaletasun eta problematika indibidualak aurkitzea, eta ibilbide didaktikoak eta estrategiak diseinatzea, indibidualak nahiz taldekakoak.

7. Ebaluaketa.

Orientabide Orokorrei dagokien atalean ikasleagoa ebaluatzeko une eta prozedurak zehaztu ziren, eta baita unitate didaktikoaren funtzionamendua ebaluatzeko irizpideak ere.

Zertan nabil hemen? unitateari dagozkion ebaluaketa irizpideak fitxa honetan zehazten dira:

Behatzeko eguneroko fitxa

Ikaslea:

Taldea:

Data:

1. Unitate didaktikoa: “Zertan nabil hemen?”

- Adierazpen gaitasunez jabetzen da.
 - Ahotsarena
 - Keinuena
 - Gorputzarena
- Lengoaien bidez adierazi eta komunikatzen lortzen du.
 - Ahotsarena
 - Keinuena
 - Gorputzarena
- Ihardueretan gaitasuna adierazten du.
 - Kontzentratzeko
 - Behatzeko
 - Hautematerako
 - Gogoratzeko
 - Imitazeko
- Joku dramatikoarekiko interesik baduen eta gozatzen du.
- Bere kideekin komunikatzen al den eta taldearekin kolaboratuz moldatzen al da.
- Taldean espontaneoki integratzen da.
- Bere gaitasunengan konfidantza somatzen zaio.
- Oharrak:
 - Lorpenak:
 - Zailtasunak:

8. Baliabide materialak.

Ikasgaiaren ohizko beharretarako egokitua dagoen ohizko toki batez gain, baliabide hauek behar dira:

Ikaslearentzako baliabideak:

- Kirolerako arropa eta zapata erosoak.
- Dramatizazioko koadernoak eta boligrafoak.

Irakaslearentzako baliabideak:

- Grafofoniak (entzuteko marrazkiak).
- Laminak, argazkiak, irudiak (bikoizturik).
- Panderoa edo tresna erritmiko arrunta.
- Egunkari papera ugari eta margolari zinta roiloak.
- Kaseta erreproduktorea.
- Musika aukeraketa bat.

BALIABIDE ETA DOKUMENTU GIDA

Bibliografia

Bibliografia honetan irakaslearentzako interesgarri diren lanen zerrenda agertzen da. Halere, ikaslearentzako interesgarri izan daitezkeen oinarri oinarritzko lanak ere sartu dira, dokumentazio eta ikerketa lanetan aritu daitezzen.

Izenburu bakoitzari komentario labur bat gehitu zaio, eta edukia labur deskribatzen denez eta Dramatizazioaren ikuspegitik lanak duen interesa baloratzen denez, orientagarria izan daiteke.

Aukeraketa egiterakoan erabili diren irizpideak praktikotasuna eta interesatuarendako eskuragarritasuna dira.

Interes handiko lan batzuk ez direnez aspaldidanik argitaratu, alabaina, irakasleak bigarren atalean adierazten diren baliabide guneetara, liburutegieetara eta liburudenda espezializatueta jo beharko du.

Ziurrenik Bigarren Hezkuntzako ikaslegoari expreski zuzendutako lanen zerrenda motz samarra izatea harrigarria irudituko zaio norbaiti. Ez dago Estatuan heziketa maila honetako irakasleari laguntza emateko ekoizpen bibliografiko ugarririk. Hutsune hau betetzeko Haur eta Lehen Hezkuntzako izenburu garrantzitsuak agertzen dira. Printzipioz antzerkilari profesionalei zuzendutako izenburu batzuk ere aipatzen dira. Eta honek badu funtsik, batzuek eta besteek ikasgaiari interesik badutelako, baldin eta Oinarritzko Bigarren Hezkuntzako Dramatizazioaren planteamenduetara dagokion egokitzapena egiten bada.

Aukeratutako bibliografia atal hauetan agertzen da:

1. Iharduera sorta.
2. Gelan egiteko proposamen teoriko-praktikoak.
3. Interpretaritza.
4. Eszenarako adierazpen baliabideak:
 - Lan orokorrak.

- Eszenografia.
- Jantziak.
- Makilaia eta karakterizazioa.

5. Antzerkilaritzaren historia.
6. Antzerkiaren teoria.
7. Eszena zuzendaritza.
8. Objektuen antzerkia.
9. Antzerkia eta hezkuntzari buruzko esperientziak.
10. Gazteentzako antzerki testu bildumak.
11. Euskarazko bibliografia.

1. Iharduera sorta:

- v ARRANA, Emilio: *El juego escolar (405 joku)*, Madril, Escuela Española, 1988.

Hainbat helburu lortzeko joku sailkatuak: aurkezpena, ezagutza, ziurtapena, lankidetzaren distentsioa, adierazpena, komunikazioa, e.a. Liburu ezberdinak aztertuz jokuen bilketa eta berzentsoa denez, oso interesgarria da.

- v BOAL, Augusto: *Doscientos ejercicios y juegos para el actor y para el no actor con ganas de decir algo...*, Argentina, Crisi, 1975.

Boal, Stanislavsky eta Brecht-en ariketak antzezlearen prestaketarako. Entsaio eta muntairako teknikak ere badakarzki. Kutsu ideologiko handia duen lana da. Beraz, talde ezberdinetara molda daiteke. Zentzuen lanari buruzko informazioa ere badakar.

- v CABALLERO, Cristina: *Manual para educar la voz hablada y cantada*, Mexiko, Edamex, 1988.

Ahots ariketak lantzeko oso eskuliburu erabilgarria.

- v CAÑAS, José: *Actuar para ser*, Córdoba, Fundación Paco Natera, 1989.

Oso erabilgarria. Lehenengo zatian muntai baten sekuentzializazioa agertzen da eta bigarrenean 36 saioko ikastaro oso bat sekuentziatzen da dagozkion ariketa guztiekin.

- v CASANELLI, Fabrizio: *Gesticulando*, Bartzelona, Aliorna, 1988.

Antzerkia egiteko 40 fitxa. Oso liburu interesgarria da eta antzerkilaritzaren alderdi guztiak lantzen joateko eta imitaziotik dramatizazioa pasatzeko ariketak biltzen ditu.

v CASTILLO, Carles: *Mimo. El grito del gesto*, Valentzia, Víctor Orenge, 1991.

Mimogintzan hasteko hogeita bost lan saio modu errazean azaltzen dituen oinarrizko eskuliburua da. Argazkiak eta makilari buruzko hasi-mahasi batzuk ere azaltzen dira.

v CERVERA, Juan: *Cómo practicar la dramatización con niños de cuatro a catorce años*, Madril, Cincel-Kapelusz, 1984.

Adierazpen dramatikoa lantzeko ariketen eta gelan erabiltzeko eta adierazpena garatzeko ariketen laburpena.

v DELGADO, Fidel: *El juego consciente*, Bartzelona, Integral, 1986.

Helduentzako jokuen eskuliburua, norberaren ezagutza lantzeko zuzenduta batez ere.

v FAURE, Gerard, eta LASCAR, Serge: *El juego dramático en la escuela*, Madril, Cincel-Kapelusz, 1984.

Adinka sailkatutako hirurogeita hamasei ariketa fitxa, helburuak, ihardueren garapena, oharrak eta iradokizunak adieraten direlarik. Memoria sensorialaren erlajaziotik hasita, keinuen hizkuntza eta dramatizazioak lantzen dira. Oso ariketa liburu ona da, eta eskola adinean mugarik gabe erabili daiteke.

v HERANS, Carlos, eta PATIÑO, Enrique: *Teatro y escuela*, Bartzelona, Laia, 1986 (Cuadernos de Pedagogía bilduma).

Eskuliburu erabilgarria. 8 eta 14 urte bitarteko ikasleekin lan egiteko pentsaturik badago ere, ariketak 14-16 adinera molda daitezke.

v LOBATO, Clemente: *Técnicas de animación para grupos de preadolescentes*, Bilbo, 1986 (Cuadernos Adarra 28).

Norberaren ezagutza, integrazioa eta gorputz adierazpena lortzeko joku eta dinamikak, aurreadoleszentzirako expreski pentsatuak. D.B.H.-rako interes handia ute.

v MIRALLES, Alberto: *Veintitrés monólogos para ejercicios*, Madril, Colección La Avispa, 1984

Gorputz adierazpenerako 125 ariketen bilketa. Oso lan praktikoa, erabilera anitzekin. Sarrera teorikoa eta bibliografia ere baditu.

v MOTOS, Tomás: *Iniciación a la expresión corporal (Teoría, técnica y práctica)*, Bartzelona, Humanitas, 1983.

Oso oinarrizko eskuliburu konpletua, gorputz adierazpenaren alderdi guztiei buruzko ikuspegi orokorra ematen duena. Irudi ugari eta bibliografia dauka. Behar beharrezkoa.

- v MOTOS, Tomás: *Juegos y experiencias de expresión corporal*, Bartzelona, Humanitas, 1987.

Gorputz adierazpenari buruzko 125 ariketa sorta. Oso lan praktikoa, erabilpen ugariarekin. Sarrera teorikoa eta bibliografia daude.

- v MOTOS, Tomás, eta TEJEDO, Francisco: *Prácticas de dramatización*, Bartzelona, Humanitas, 1987.

Ikasgelan egiten den antzerkilaritzaren alderdi guztiak jasotzen dituen eskuliburu oso konpletua eta argia. Helburuak, ariketak eta ebaluaketa agertzen da. Oso erabilgarria da eta oso ondo antolatua dago. Behar beharrezkoa.

- v PERETA, Rosa: *Creatividad teatral*, Madril, Alhambra, 1986 (Biblioteca da Recursos didácticos 13).

Ikasleen adinera egokitutako ariketa interesgarrien bilketa. Hasieratik textura iritsi arte lantzen du.

- v ROBERTS, Peter: *Mimo. El arte del silencio*, Bilbo, Deustuko ICE, 1983.

Berotzeko eta oinarrizko teknikak lantzeko hogeita lau ariketa ariketa, irudi ugari orniturik.

2. Proposamen teoriko-praktikoak:

- v AA. VV.: *Teatro, imagen y animación*, Bartzelona, Laia, 1983 (Cuadernos de Pedagogía bilduma).

Imajina eta antzerkilaritza disziplinarreko ihardueren laburpen xehea, adierazpen, parte hartze eta sormen gaitasunak garatzeko bideratuta dagoelarik.

- v BLASICH, Gottardo: *La dramatización en la práctica educativa*, Bartzelona, Edebé, 1982.

Teoria eta praktikari buruzko eskuliburu. Proposatzen dituen ariketen grafikoak erabiltzea interesgarria da.

- v CAÑAS, José: *Didáctica de la expresión dramática. Una aproximación a la dinámica teatral en el aula*, Bartzelona, Octaedro, 1992.

Dramatizazioaren gaitasun didaktikoei buruzko gogoetak dira. Iharduerak eta muntaiak sekuentziatzeko erabilgarria da.

- v CERVERA, Juan, eta GIRAU, Antonio: *Teatro y educación*, Bartzelona, Edebé, 1982.

Dramatizazioaren teoria. Testu dramatiko baten egokitzapenari buruzko iradokizunak erabilgarriak izan daitezke.

- v ELOLA, Hilda: *Teatro para maestros*, Buenos Aires, Marymar, 1989.

Gelan erabiltzeko eskuliburu zoragarria. Gidoi dramatikoaren eskema eta ipuinen egokitzapenetik abiatutako ariketa konkretuak. Oso xehea eta zehatza da eta hamar urtetatik hamaseira arte erabiltzeko egina dago.

- v EINES, Jorge, MANTOVANI, Alfredo: *Teoría del juego dramático*, Madril, MEC-ICE, 1990.

Dramatizazioaren pedagogiari buruzko klasikoa. Eskolan adierazpen dramatikoa lantzearen aldeko argumentazio teorikoa dakar, halanola helburuak, programaketa eta ihardueren ebaluaketa.

- v GIMENO, J.: *La educación de los sentidos*, Madril, Santillana, Aula XXI, 1989.

Teoria, ariketak, aplikazioak eta jokuak zentzu guztiak garatzeko. Ia ahazturik dauden zentzuak esnaarazi eta garatzeko oso erabilgarria da: dastamena, usaimena, ukimena. Gaiari buruzko bibliografia eta ebaluazio fitxak ere baditu.

- v GIL FERMANÁNDEZ, Juana: *Los sentidos del lenguaje*, Madril, Síntesis, 1990.

Mintza aparatoaren azalpena eta akustika nozioak. Soinu ekoizpena soinuaren audizioa eta autematea.

- v GISBERT, Joan Manuel: *El lazarillo fantástico*, Bartzelona, Edebé, 1984.

Liburu interesgarria da eta objektu, egoera, gaiak, e.a. oinarritzat hartuta hainbat alderdi teatral eta sasi teatral ezberdinak lantzeko sormen haundiko proposamenak ditu.

- v HEWIT, James: *Relajación*, Madril, Pirámide, 1988.

Egunerokotasunari lotutako erlajazioari buruzkoa da. Gelan erabili daitezkeen ariketa eta kontzeptuak ditu. Argitaratzen ari den bildumaren izena adierazgarria da: Aprende tú solo.

- v HODGSON, J.: *Improvisación*, Madril, Fundamentos, 1982.

Inprobisazioaren teknika ezagutzeko eta antzerkilaritzaren artean eta hezkuntzan duen garrantzia ezagutzeko behar-beharrezko liburua. Idazleak jende gaztearekin duen esperientzia praktikoa du oinarritzat.

- v HERANS, Carlos, eta PATIÑO, Enrique: *Teatro y escuela*, Bartzelona, Laia, 1982.

Pedagogia dramatikoari buruzko lan klasikoa da Estatuan. Programaketen datu interesgarri eta erabilgarriak biltzen ditu, nahiz eta ez dauden gaurkotuta. Oso erabilgarriak dira egokitzapen zehatzak eta gai bat oinarritzat hartuta haurrek sortzen dutena.

- v JOHNSTON, Keith: *La improvisación y el teatro*, Txile, Cuatro Vientos, 1990.

Inkonszientearen elementuetatik abiatutako inprobisazio teknika zehatzak ezartzen ditu, bapatekotasuna eta lan orijinala bultzatzeko. Izenburu hau izan arren, lan dramatikoari buruzko askoz informazio gehiago dakar, inprobisazioari buruz baino.

v LAFERRIERE, Georges: *La improvisación pedagógica teatral*, Bilbo, EGA, 1993.

Antzerki inprobisazioko topaketak antolatzeko inprobisazioari buruzko lanak. Inprobisazioaren kontzeptua eta duen balio pedagogikoa.

v MAINE, Marie Colette: *Escenificar un cuento*, Bartzelona, Vilamala, 1974.

Nahiz eta haurrentzako iharduera eta adibideetan aritzen den oso erabilgarria da bere planteamentuen zehazpenagatik. Oso probetxuzkoa izan daiteke lehenengo aldiz aritu behar dutenentzat, testu, dekoratu, janzkera, e.a.-ei buruzko ataletan zatitzen baitu lana.

(Argitaletxe berak, bere Colección 100 Ideas bilduman, ale erabilgarri eta interesgarriak ditu txotxongilo, ikusentzuteko joku, esku teknikak, gorputz itzalak, e.a.-ei buruz).

v MANTOVANI, Alfredo: *El teatro, un juego más*, Madril, Nuestra Cultura, 1981.

v MANTOVANI, Alfredo: *Teoría del juego dramático*, Madril, MEC, 1980.

Joku dramatikoari buruzko informazio teorikoa duten testuak, eta haur nahiz gaztearen garapen aro ezberdinen araberrako planteamentuak. Jokuaren kontzeptua, gelako lanaren orientabideak eta irakaslearen zeregina.

v MARÍN IBÁÑEZ, Ricardo: *La creatividad*, Bartzelona, CEAC, 1984.

Sormena ikuspegi orokor batetatik aztertzen du, ez antzerkilaritzaren ikuspuntutik soilik. Erabilgarria da sortzailetasun, ebaluaketa eta tekniken adierazleak erabiliz aplikazio praktikoak egiten dituelako. Bibliografía zabala dakar.

v PASSATORE, Franco, LASTREGO Cristina, eta TESTA, Francesco: *Me gusta hacer teatro* (2 ale), León, Everest, 1988.

Testu, joku, janzkera, objetuekin eginiko ariketa, makilari eta azterketa dramatikoari buruzko atal oso bisual eta adierazgarriak ditu. Sormen kolektiboari buruzko eskema ete oso interesgarria da.

v PASSATORE, Franco: *Yo soy el árbol (tú el caballo)*, Bartzelona, Reforma de la escuela, 1984.

Oso erabilgarri da ideia asko ematen dituelako edozein adinetako taldeekin, handia nahiz txikia, antzerki iharduerak egiteko, eta baita joku erritmikoak, espazio jokuak e. a. egiteko ere.

v POVEDA, D.: *Creatividad y teatro*, Madril, Narcea, 1973.

Iharduera dramatikoa eta sormenaren arteko harremani buruzko ikerketa sistematikoa. Egindako iharduerak ebaluatzeko galdetegi ereduak dakartza, eta baita gaiari buruzko bibliografía ere. Behar-beharrezko da ez badago programaketa argi eta zehatzik.

v RODARI, Gianni: *La gramática de la fantasía*, Bartzelona, Reforma de la Escuela, 1979.

v RODARI, Gianni: *Ejercicios de la fantasía*, Bartzelona, Aliona, 1987.

Liburu klasikoak jada, eta istorioak asmatzerakoan imajinazioa garatzeko eta sormena sustatzeko oso erabilgarriak.

v SCHINCA, Marta: *Expresión corporal (Bases para una programación teórico práctica)*, Madril, Escuela Española, 1988.

Oso erabilgarria da argi agertzen delako gorputz adierazpena gorputzaz jabetzeko modua dela, eta baita ere espazioa, denbora eta erritmoarekin duen harremana. Grafika eta irudiak ere baditu.

v SLADE, Peter: *Expresión dramática infantil*, Madril, Santillana, 1978.

Dramatizazioaren didaktikaren edozein bibliografiatan beharrezkoa den erreferentzia. Haur dramatikaren garapenak dituen abantaila buruz egon den aportazio finko eta garatuenetariko da. Haurren esparruari atxikitzen zaio ia erabat, baina nerabezaroan egin daitezkeen iharduerei ete egiten die erreferentzi.

v TEJERINA, Isabel: *Dramatización y teatro infantil (dimensiones sicopedagógicas y expresivas)*, Madril, Siglo XXI, 1994.

Antzerkilaritza fenomenoari eta heziketarako duen balioari buruzko erreflexio bat eskaintzen digu, eta baita jokuak duen sormen gaitasunari buruzkoa ere.

v TEJERINA, Isabel: *Estudio de los textos teatrales para niños*, Santander, Servicio de Publicaciones de la Universidad de Cantabria, 1993.

Azken 50 urtetan haurrentzat idatzi diren antzerki textuei eginiko gainbegirada kritikoa dugu.

3. Interpretarritza:

v BERNHARDT, Sarah: *El arte del teatro*, Bartzelona, Parsifal, 1994.

Sarah Bernhardt aktosesa handiaren ikuspuntuak aktorearen lanari eta prestaketari buruz.

v BROOK, Peter: *La puerta abierta. Reflexiones sobre la interpretación y el teatro*, Bartzelona, Alba, 1994.

Prestigio handiko zuzendari honen burutazio interesgarriak bere ikuskizunen muntaiei buruz.

v BRYANT, Sara: *El arte de contar cuentos*, Bartzelona, Hogar del Libro, 1984.

Ahozko literatura eta eta honen adierazpenari buruzko klasiko dugu. Adin ezberdinetarako ipuin tradizional sail bat jasotzen du.

- v EINES, Jorge: *La formación del actor (introducción a la técnica)*, Madril, Fundamentos, 1988.

Autorearekin egindako lan saioen transkribaketa. Hainbat ariketa daude hauen planteamendua, garapena eta ebaluaketa deskribatuz. Eines eta parte hartzaileen arteko elkarriketa ere agertzen da, saioetan parte hatuko balitz bezala.

- v LAYTON, William: *¿Por qué? Trampolín del actor*, Madril, Fundamentos, 1989.

Stanislawsky-ren interpretazio metodoaren aplikazioa ipar amerikarren erara sistematizatzen duen testua da. Eszena zehatzen adibideak ditu.

- v MEYERHOLD, Vsevolod: *Teoría teatral*, Madril, Fundamentos, 1971.

Antzerkilaritza garaikidearen naturaltasun eszenikoa gainditu zuen zuzendari honen eszenaratzei buruzko testu teotiko eta informazioen bilketa dugu.

- v STANISLAWSKY, C.: *La construcción del personaje*, Madril, Alianza, 1975.

Antzerkilarien karakterizazio fisikoa, janzkera, pertsonaiak eta tipoak, gorputzaren adierazpen gaitasuna, mugimenduen plastizitatea, kontrola, hitzegiteko modua eta kantoa, intonazioa eta etenak, azentuazioa eta adierazgarritasuna, e.a. azaltzen dira.

4. Eszenarako adierazpen baliabideak:

Obra orokorrak

- v BONT, Dan: *Escenotécnicas de teatro, cine y TV*, Bartzelona, LEDA, 1981.

Oso liburu erabilgarria da argia eta erraza delako eszenografia, argia, soinua, jazkera eta makilaiaren alderdi tekniko guztietan.

- v PORTILLO, R., eta CASADO, J.: *Abecedario del teatro*, Madril, Centro de Documentación teatral, 1988.

Interesgarria da modu erraz eta argian antzerkilaritzaren hiztegi osoa ezagutzeko, bai antzerki literaturaren ikuspegitik, bai eszenaratzeari begira (arkitektura, argia, soinua, eszenografia, efektu bereziak, makilaia, e.a.).

Eszenografia:

- v GAULME, J.: *Architectures scénographiques et décors de théâtre*, Paris, Editions magnard, 1985.

Oso liburu erabilgarria eszenografia ezagutzeko historian zehar eta gaur egungo joeretan. Tramoia egiteko diseinu eskuragarriak, errazak eta aise ulertzekoak ere baditu.

- v GUARDIA, Manuel, eta ALONSO, Raúl: *Técnicas de construcción, ornametación y pintura de decorados*, Madril, Instituto Oficial de Radio y Televisión, RTVE, 1988.

Profesionalei zuzenduta dagoen arren, azaltzen duen teknika eta material mordoaren artean aurki daiteke materialeen deskribapena, nola erabili eta eszenografia errazagoentzako aholkuak. Argazkiak, marrazkiak eta hiztegi teknikoa dakar.

- v MEYER, F. S.: *Manual de ornamentación*, Bartzelona, Gustavo Gili, 1976.

Eskuliburu honek, leporaino irudiz beteta dagoelarik, apaingarrien ikerketa sistematikoa egiten du, eta alor ezberdinetan eduki dezaketen erabilera: keramika, altzariak, tresnak, idazkera, heraldika, e.a. Oso erabilgarria da eszenografiako osagarrientzat eta atrezzo-a egiteko laguntza handia ematen du.

- v VOLTAS, Jordi: *Los efectos especiales*, Bartzelona, La Galera, 1994.

Taller de Teatro oinarri-oinarrizko bildumaren atal bat da. Ikaslegoari zuzenduta dago, batez ere, eszenako efektuen oinarriko alderdiak biltzen ditu (euria, gaua, odola, sua...). Bilduma berean beste ale batzuk daude janzkera, eszenografia eta zuzendaritzari buruz. Jatorrizko testuak edo gazteen antzerkirako moldatutakoak ere biltzen ditu.

Jantziak

- v BAÑO, Antonia: *Cómo vestía Europa (1450-1850)*, Bartzelona, Cymys, 1983.

Hamasei ebakigarri eta oinarriko hiztegia dauka. Historia, ekonomia eta janzkera erlazionatzen ditu. Erraza eta iradokizunez betetakoa.

- v LAVER, James: *Breve historia del traje y de la moda*, Madril, Cátedra, 1990.

Trajea eta bere osagarri, zapata, ileorde, kapela e.a.-ei buruzko ikerketa interesgarria, historiaurretik hasita gaur egunera arte. Garaiko margo erreproduzioz eta grabatuz irudikatuta dago.

- v RACINET, Albert: *Historia del vestido y la moda*, Madril, LIBSA, 1990.

Janzkerari buruzkoa den obra klasiko baten zati baten berrargitarapena. Garai eta herrialde ezberdinetako janzkerak izan duen bilakaeta jorratzen du. Lehenengo argitarapenaren faszimilarekin erabat ornituta dago (1876-1888). Oso erabilgarria eta osoa dokumentazio iturri bezala.

- v ROWLAND-WARNE, L.: *Trajes*, Madril, Santillana, 1992.

Europako trajearen bilakaerak izan dituen garai ezberdinen deskribapena, batez ere argazkien bidez. Osagarriei buruzko informazio asko eta argia. Jazkera diseinatzeko oso erabilgarria.

Makilaia eta karakterizazioa

- v GAITUS, Pilar: *Maquillaje para niños*, Bartzelona, CEAC, 1989.

Oinarri-oinarrizko liburixka haurrentzako makilaiak egiteko, errealistak eta fantasiakoak. Oinarriko aholkuak ditu hasi berrientzako.

- v KEHOE, Vicent: *La técnica del artista de maquillaje profesional para cine, televisión y teatro*, Madril, Instituto Oficial de RT, RTVE, 1988.

Lan zabala eta nahiko tekniko adierazpen baliabideen eta imajinaren arteko harremanari buruz. Goi mailakoa izan arren, aholku zehatzak eta praktikoak ematen dizkigu, oso erabilgarriak eta aplikagarriak. Makilaia motak, efektu bereziak lortzeko teknika bereziak eta aplikatzeko metodoak ere baditu.

5. Antzerkilaritzaren historia:

- v *El Teatro*, Bartzelona, Noguer, 1977.

Hiztegi moduko poltsiko-liburua da, eta hasteko hurbilpen labur bat egiten du teoria, ikerketa, egilea, konpainia eta bizipenei buruz.

- v MACGOWAN, Kenneth, eta MELITZ, William: *Las edades de oro del teatro*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 1964.

Antzerkilaritzaren historiari buruzko ezinbesteko eskuliburua: idazleak, generoak, garaiak, e.a. Laburra, motza eta oso erabilgarria, nahiz eta ez dagoen zehatz-mehatz gaurkotua.

- v OLIVA, César, eta TORRES MONTREAL, Francisco: *Historia básica del arte escénico*, Madril, Cátedra, 1990.

Antzerkilaritzaren historia azaletik gainbegiratzen du, baina kronologia erabilgarriak, aurkibideak eta bibliografia hautatu bat ere baditu. Hasi behar duenarentzat behar-beharrezkoa.

- v SALVAT, Ricard: *El teatro como texto y como espectáculo*, Bartzelona, Montesinos, 1986.

Antzerkilaritzaren historian zehar egindako ibilbide laburra eta interesgarria, eszenaratzea kontutan hartzen delarik.

6. Antzerkilaritzaren teoria:

- v BROOK, Peter: *El espacio vacío. Arte y técnica del teatro*, Bartzelona, Península, 1968.

Antzerkilaritzari buruzko ikerketa zoragarria eta iradokizunez betetakoa. Zuzendari honen antzerkilaritzari buruzko gogoeta sakona eta oso berezkoa; halere ideia eta proposamen berriz beteta dago.

- v DIOSDADO, Ana: *El teatro por dentro. Ceremonia, representación, fenómeno colectivo*, Madril, Salvat, 1981.

Oso liburuxka didaktikoa bere testu eta irudietan. Salvat-en Colección Aula Abierta bilduma ezaguneko da. Ikasleek irakurtzeko interesgarria.

- v FÁBREGAS, Xavier: *Introducción al lenguaje teatral*, Bartzelona, Los libros de la Frontera, 1975.

Atsegina eta argia denez, antzerkilaritzaren hizkuntzaren elementu eta funtzioetan murgiltzen hasteko oinarritzko tresna izaten jarraitzen du. Erabilgarria eta interesgarria.

- v FERNÁNDEZ OLIVEROS, Ramiro: *la fiesta teatral*, Madril, Doncel, 1972.

Poltsiko-liburu sinplea, antzerkilaritzaren teoria, teknika eta praktikaren oinarritzko sarrera egiten duena. Ikaslearen irakurketa pertsonalerako interesgarria.

- v PATRICIA TRAPERO, A.: *Introducción a la semiótica teatral*, Palma, Prensa Universitaria, 1989.

Eskuliburu motza eta oinarritzkoa errepresentazioaren eta textuaren hastapeneko irakurketa semiotikoa egiten duena.

- v PAVIS, Patrice: *Diccionario del teatro: dramaturgia, estética, semiología*, Bartzelona, Paidós, 1990.

Erabilgarritasun haundiko hiztegia, bai terminologian, bai edukian, historian, e.a.-ean informazio haundia ematen duelako. Bibliografia zabala dakar.

7. Eszena zuzendaritza:

- v BRAUN, Edward: *El director y la escena*, Buenos Aires, Galerna, 1986.

Meninger-engandik hasita, Grotowski-ra arte hartzen du.

- v CANFIELD, Curtis: *El arte de la dirección escénica*, Madril, Publicaciones de la ADE, 1991.

Textu analisi, zuzendaritza eta mugimenduei buruzko adibide zehatzak. Profesional mailakoa izan arren, maila guztietan asko ikasi daiteke.

8. Objeto antzerkia:

- v ANGOLOTI, Carlos: *Cómics, títeres y teatro de sombras*, Madril, Ed. de la Torre 1990.

Objeto-antzerkia hainbat tekniken ezberdinen bidez lantzeko oso liburu interesgarria. Bibliografia dakar.

- v *Cómo hacer y manejar marionetas*, Madril, SM, 1991.

Haurrentzako liburua, irudien bidez txotxongiloak nola egin eta maneiatu erakusten duena. Oso erabilgarria da hasteko, eta materialak nola erabili jakiteko proposamen bisualak egiten ditu.

- v GONZÁLEZ, J.M.: *29 máscaras caretas y antifaces*, Bartzelona, Graó, 1990.

Oso liburu didaktikoa maskaren historia, teknika ezberdinez nola egin eta pedagogikoki nola erabili adierazten duena.

- v LA FERLA, Franco: *Juegos de sombras*, Bartzelona, Edebé, 1979.

Oso eskuliburu erraza eta osoa itzal eta transparentzia teknikari buruz. Eszenaratzeko testu eta urratsak ere baditu.

- v PESSEL, Alain: *Sombras corporales*, Bartzelona, Hogar del Libro, 1989.

Arras erabilgarria da eskuliburua, eta teknika honetan hasteko oso gomendagarria. Dekoratu eta eszenaratzeei buruzko arauak ere ematen ditu, beti ere oso era erraz eta zehatzean.

- v TANAKA, Beatrice: *Pequeño teatro: marionetas y disfraces*, Valentzia, MasIvars, 1979.

Proposamen ugari eta zehatzak txotxongiloei, maskareei, itzal txinatarrei, paperezko eta oihalezko soinekoei, gazteluei eta beste haibat jokuei buruz. Haurrei zuzenduta dago, baina helduek ere etekina atera diezaioke.

- v TEATRO GIOCO VITA: *Teatro de sombras*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitarapen Saila, 1987.

Ikusentzuteko baliabideek dituzten aukerak sistematikoki azaltzen duen testu elebiduna. Antolaketari buruz ere atal bat dauka, prozesuaren irudi eta argazki ugarirekin.

- v VARELA CALVO, Jorge, eta RUIZ MARTORELL, Amparo: *El actor oculto*, Castello, Castello-ko Diputazioa, 1986.

Informazio historikoa, interpretazio artistikoa eta ariketak maskara, itzal, eta txotxongiloei buruz.

9. Antzerkilaritza eta hezkuntzari buruzko esperientziak:

- v CALLEJAS, José María: *El teatro educa. Experiencias didácticas en filosofía*, Madril, Narcea, 1988.

Lehenik adierazpen dramatikoa hezkuntzarako metodotzat jotzen du filosofia eta didaktikan oinarrituz. Ondoren Bigarren Hezkuntzako ikasleekin trajedia klasikoa eta garaikideaz egindako esperientziak xeheki azaltzen ditu.

- v CAÑAS, José: *Actuar para ser*, Jaén, Fundación Paco Natera, 1984.

O.H.O.-ko ikasleekin izandako hiru esperientzia biltzen ditu.

v HERANS, Carlos: *Teatro, imagen, animación*, Bartzelona, Laia, 1983.

v HERANS, Carlos: *Teatro y escuela*, Bartzelona, Laia, 1982.

Carlos Herans eta Enrique Patiñok heziketa munduan egindako esperientziak dira, Acción Educativa de Madrid dramatizazio taldeko kideak izaki. Interesgarria da gelako lanarengatik eta irakaslearen zereginaz duten iritziarengatik.

v MILLÁN, Asunción, eta HERNÁNDEZ, Javier: *El teatro elemento de motivación en la enseñanza del francés (tres actividades didáctico-teatrales, tres sistemas de trabajo)*, Salamanca, ICE, 1986.

Antzerkiarekiko interesa eta hizkuntzaren irakaskuntza uztartzen dituzten hiru esperientzien deskribaketa.

10. Gazteentzako antzerki testu bildumak:

v *Campo de marte. Teatro joven* bilduma, Valladolid, Castilla Ediciones.

Españako antzerkilaritzan errotutako autore garaikideek gazteentzako testuak idazten dituzte. J. L. Alonso de Santos, F. Fernán-Gómez, A. Miralles, e.a.-en testuak ditu.

v *Taller de Teatro* bilduma, Bartzelona, La Galera.

Aurreko lanak baino errazagoak eta motzagoak, egokitzapen batzuekin.

v GARCÍA BARQUERO, Juan: *Obras teatrales de William Shakespeare*, León, Everest, 1979.

Shakespearearen hamar obren egokitzapenak, komedia nahiz trajediak, gaztetxoentzat erosoagoa den erritmo et hizkuntza bilatuz.

11. Euskarazko bibliografia:

Estatu mailan D.B.H.-n Dramatizazioa lantzeko bereziki prestatuta dagoen material didaktikoa urria bada, zer esanik ez euskaraz. Euskaraz argitarapen bakan batzuk badaude, baina Lehen Hezkuntzarako zuzenduak. Dauden apurrak, ordea, ezagutzea komeni dela esan daiteke.

Bestalde, euskaraz idatzitako antzezlan sorta bat bildu dugu, oso erabilgarriak izan baitaitezke 12-16 urte bitarteko neska-mutilekin lantzeko (beharrezko aldaketak eginez, noski).

v ANTZERTI

Eusko Jaurlaritzako Dramatizazio Zentruak 1932 urtez geroztik kaleratutako aldizkaria dugu. Gerra aurretik eta ondoren sortutako euskarazko antzerki testu oso erabilgarriak argitaratzen ditu.

v DIAZ ESARTE, Xabier: *Sei haur komedia, a ze nolako komeria!*, Lizarra, Gráficas Lizarra, 1995.

Sei antzezlan biltzen ditu didaktikoki nola landu eta ze bide jarraitu zehatz-mehatz adierazirik. Oso interesgarria da Dramatizazioa Erreformarekin lotuta planteatzen delako, eta D.B.H.-rako oso egokia delako.

v ETXAIDE, J.: *Purra, purra*, Donostia, Erein, 1981.

v GIPUZKOAKO ELIZ BARRUTIKO IRAKASLE ESKOLA ETA TXOTXONGILO TALDEA: *Amonaren ipuinak*, Eusko Jaurlaritzako Argitarapen zerbitzua, Gasteiz, 1983.

v GENUA, Enkarni: *Bene-benetan katua berbetan (Dramatizazioa I, II, III, IV)*, Donostia, Elkar, 1993.

Adierazpen dramatikoak lantzeko iharduerak. 6-10 urte bitarteko umeentzat dago prestatua, baina gaztetxoentzat ere molda litezke.

v GENUA, Enkarni: *Bene-benetan katua berbetan (Dramatizazioa V eta VI)*, Donostia, Elkar, 1994.

Oinarrizko orientabideak eszeneratzeari, makilariari, janzkerari, karakterizazioari, maskarei eta txotxongiloei buruz. 11-12 urte bitartekoentzako egina egonda ere, baliagarria izan liteke egokitzapenak eginez gero.

v GENUA, Enkarni: *Txotxongiloa eskolan*, Donostia, Erein, 1982.

v GENUA, Enkarni eta GÓMEZ, Manolo: *Txotxongilo*, Donostia, Antzerti aldizkaria, 1983.

v GENUA, Enkarni: *Zatoz, Zizurkil*, Tolosako Ekimen Zentrua, 1993

Txotxongiloei buruzko oinarrizko bi liburu.

v IRIONDO, Lurdes: *Buruntza azpian*, Donostia, Mensajero, 1975.

v ITURBIDE: *Antzerkilandia*, Donostia, Elkar, 1992.

v ITURBIDE, M: *Txangoz Txanagorritxurekin*, Donostia, Mensajeros.

v LÓPEZ DE LEZA, Itxaropena: *Haurrak euskalduntzen giñolaren bidez I eta II*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzako Argitarapena Zerbitzua.

v MINABERRI: *Antzerkia ikastetxean*, Donostia, Mensajeros, 1993.

v MINABERRI: *Haur antzerki*, Bilbo, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1993.

v ODRIOZOLA, Imanol: *Bat, bi eta hiru*, Donostia, Mensajeros, 1993.

v URKIZU, Patri: *Euskal antzerki*, Donostia, Euskadiko Antzerki Zerbitzua (Eusko Jaurlaritzak), 1984.

Lehenengo zatian Euskal Herriko herri antzerkiari buruzko informazio zabala ematen du (maskaradak, pastoralak, astolasterrak...). Bigarren atalean antzerkia euskaraz idatzi duten idazleen historia dakar. Bukaeran bibliografia zabal bat gehitzen da.

v TAGORE, R.: *Erregearen postaria*, Donostia, Mensajeros, 1990.

Orain antzerki testu bilduma bat gehituko dugu, D. B. H.-n lantzeko (helduei nahiz hurrei antzezteko). Hauetako asko Antzerki-n aurki daitezke (Eusko Jaurlaritzako Dramatizazio Saila):

v ANTZERTI (Kooperazioa): *Jakin euskal antzerkia*.

v ANTZERTI (Kooperazioa): *Toribio Alzaga heriotzaren 50. urtemugan zenbait lan*.

v ANTZERTI (Kooperazioa): *On Manuel Lekuona eta bere teatroa*.

v ANTZERTI (Kooperazioa): *Anastasio Albisu*.

v ANTZERTI (Kooperazioa): *Leon leon, bortz komedia eta lau alegia*.

v AROZENA, Eugenio: *Altabizkarko kanta*, Antzerki.

v ARRIETA, Yolanda: *Badago ala ez dago?*

v CASTELAO, Alfonso: *Ogureok maitemindu bear ez*, Antzerki.

v EPALZA, Aingeru: *Mugetan urri*, Pamiela.

v EURIPIDES: *Troiako emakumean*, Antzerki.

v FO, Dario: *Izuaren aurpegia*, Antzerki.

v GOLDONI, Carlo: *Arlekino, bi nagusiren zerbitzari*, Antzerki.

v IRIGOIEN, G: *Zortzi ehun ahari*, Antzerki.

v LANDART, Daniel: *Nola jin hala joan*, Antzerki.

v LARZABAL, Pieres: *Matalas*, Antzerki.

v LIZARDI, Xabier: *Ezkondu ezin ziteken mutilla*, Antzerki.

v LÓPEZ, Manu: *Andoni eta Maddalenen komediak*.

- v LÓPEZ, Manu: *Jokoz kanpo*.
- v ODRIOZOLA, Imanol Elias: *Bi ahoko efata*, Antzerti.
- v OLAIZOLA, Joseba: *Markesaren alaba*, Antzerti.
- v SASTRE, Alfonso: *Bazterrean utzitako panpinaren ixtoria*, Antzerti.
- v SASTRE, Alfonso: *Guillermo Tellek triste ditu begiak*, Antzerti.
- v SHAKESPEARE, Willian: *Richard II*, Antzerti.
- v SHAKESPEARE, Willian: *Enrike VIII*, Antzerti.
- v SHAKESPEARE, Willian: *Neurriaren neurriaz*, Antzerti.
- v SHAKESPEARE, Willian: *Zeuk nahi duzunez*, Antzerti.
- v STEISSON, Gudmundur: *Atsedeen laburra*, Antzerti.
- v STRINDBERG, August: *Herio dantza*, Antzerti.
- v TAUPADA ANTZERKI TALDEA: *Behin batean... ju, ju, ju...*, Antzerti.
- v URROZOLA, Estanislao: *Askatasun garratza*, Antzerti.
- v ZABALETA, Patxi: *Nafarroako azken mariskala*, Txalaparta.
- v ZIBIKARDI, Agustin: *Mendi ta itxaso*, Antzerti.

Baliabide guneak:

v Nafarroako Antzerki Eskola

San Agustin kalea, 5

31001 IRUÑEA

Tel.: 22 92 39

Liburuak, hemeroteka, bideoteka eta entzuteko artxiboa dauka. Ohizko irakaskuntzaz gain, profesional, irakaslego, haur, gazte, e.a.-entzako ikastaro eta iharduerak antolatzen ditu.

v Teknologia Berrien Unitate Teknikoa (T.B.U.T.)

Carlos III Noblea hiribidea, 36-2.

31001 IRUÑEA

Tel.: 10 77 77

Videotec datu bilduma dauka, irakaskuntzako alor ezberdinei buruzko 2.700 bideo biltzen dituelarik.

v Irakaslegoarentzako Laguntza Zentrua (Iruñako ILZ)

Nabarrerria, 39

31001 IRUÑEA

Tel.: 10 33 52

Irakaskuntzarako dituzten gauzen artean pelikulak eta antzerki lanak daude.

v Librería La Avispa

San Mateo kalea, 30

28004 MADRIL

Tel.: (91) 308 00 18

Oso liburudenda ornitua eta dinamikoa antzerki, zine, musika eta dantzan espezializatua. Aldizka bere katalogoak argitaratzen ditu. Telefonoz kontsultak eta eskaerak onartzen ditu.

v Asociación Española de Teatro Infantil y Juvenil (AETIJ)

Baviera hiribidea, 14

Parque de las Avenidal

28028 MADRIL

Iharduerak antolatzen ditu, eta haur eta gazteentzako testuak argitaratzen ditu.

v **Centro de Documentación Teatral del Instituto Nacional de Artes Escénicas y Música (INAEM)**

Capitan Haya, 44

28020 MADRIL

Oso erabilgarria datuak, helbideak, ikastaroei buruzko informazioa, e.a. jasotzeko.

v **Bilboko Udalaren Txotxongilo Dokumentazio Zentrua**

Circo Amateur del Club Deportivo, 2

48004 BILBO

Urteroko jaialdiaz gain, txotxongiloari buruzko beste iharduera batzuk antolatzen ditu. PUCK aldizkaria argitaratzen du.

v **Asociación de Profesores por la Expresión Dramática (Proexdra)**

1064 postakutxa

18080 GRANADA

Tfno: 22 67 85

Homo Dramaticus aldizkaria argitaratzen du.

v **Acción Educativa**

Príncipe kalea, 35

MADRIL

Tfno: 429 50 29

Ikastaroak, debateak, kanpainak, argitarapenak, e.a. antolatzen dituen profesionalen elkarte oso dinamikoa dugu.